

EUSKARA

IRAILA > URRIA 2020



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO



gizartea eta kultura  
garaikidea

**B**ilbao



*Dena berdin izango da.  
Ezer ez da berdin izango.*

Azkuna Zentroa. Bilboko Gizarte  
eta Kultura Garaikideko Zentroa



- 7 **Kultura + da.** Fernando Pérez. Azkuna Zentroko Zuzendaria
- 8 Sorkuntza artistikorako atea zabaltzeko eguna
- 14 Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

## **PROGRAMAZIOA**

### **/Arte garaikidea**

- 16 **Mabi Revuelta.** *Akromatikoa. Partida Hilezkorra.* Erakusketa
- 18 **Steve Paxton.** *Drafting Interior Techniques.* Erakusketa
- 19 **Leticia Paschetta.** *Paisaia ludiko zuria. Laztanen jokoak (Caresses Playscapes).* Instalazioa
- 20 **Amparo Badiola, Gema Intxausti eta Susana Talayero.** *Scriptbarik.* Erakusketa-proiektua
- 22 **Nestor Lizalde.** *Akelarre elektrikoa.* Instalazioa
- 23 **Asier Irazabal & Hernán Quipildor.** *La llave del alma (Arimaren giltza).* Fatxada Proiektua
- 24 **Pernan Goñi.** *Emakume apartak.* Fatxada Proiektua
- 25 **Josune Urrutia Asua.** *Minbiziari buruzko bilduma kolektiboa.* Ilustrazioa
- 26 **Komisariotzaren Nazioarteko Sinposioa.** *Erakusketaren saiakera (1997-2017).* Sinposioa

### **/Arte biziak**

- 28 **Osa + Mujika.** *Loser.* Dantza
- 30 **Dantzan Bilaka.** Dantza
- 31 **Fernando Carvalho.** Musika esperimentalak

### **/Zinema eta ikus-entzunezkoak**

- 33 **Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia).** Zinemateka
- 37 **Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan.** Zinema

### **/Literatura**

- 40 **Irakurketa Errazeko Kluba.** Irakurketa





- 42 Patxi Araujo. *Steps of faith*. Instalazioa. Gau Zuria
- 43 Alos Quartet. *XX Urte*. Lau. Musika eta Dantza. Loraldia
- 43 Bilboko Udal Bandaren kontzertuak. Musika
- 44 Film Sozialak. Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren 12. edizioa. Zinema
- 44 Zinemakumeak Gara! 25. emakumeek zuzendutako zinema erakusketa. Zinema
- 45 BBSC. Biscay Bay Startup Campus. Topaketa
- 46 /Laster

#### **SORKUNTZARAKO SUSTAPENA**

- 48 Mario Paniego. Komisario Berriak
- 50 Lanean. Prozesuei laguntzeko programa
- 51 Tractora Koop. E., Azkuna Zentroko Kolektibo Eogiliar berria. Kolektibo Egoilarra
- 54 Artista eta Ikertzaile Az-Kideak
- 56 Deialdiak eta egonaldiak 2020-2021

#### **HEZKUNTZA PROGRAMA**

- 60 Pernan Goñi. *Marrazten duzu nahi duzuna*. Tailerra
- 61 Sra. Polaróiska. Laborategia / Tailerra
- 62 Fernando Carvalho. Ableton Live tailerra

#### **AZ**

- 64 Azkuna Zentroa argitalpenak
- 66 Kultura garaikideari lotutako gune berriak
- 68 Jarduera Fisikoko Zentroa

#### **AGENDA**

- 72 Agenda
- 77 Informazio orokorra eta COVID-19 protokoloak





# Kultura + da

Denboraldi berria hasi behar dugu, eta rentrée honi aurre egingo diogu proiektuak estreinatzeko eta berraktibatzeko, artearen eta sorkuntzaren inguruko esperientziak berriz partekatzeko, eta kulturaren gune seguruetan berriro elkartzeko ilusioarekin.

Badakigu egungo egoerak segurtasuna eta erantzukizuna eskatzen dituela. Ildo horretan, osasun-agintariek Covid-19aren aurrean ezarritako babes-neurriak eta protokoloak abiarazi eta ziurtatu ditugu Zentroan, dauden pertsona guztiei eta bisitatzen gaituztenei aukera eman nahi baitiegu programazioaz aurrez aurre ahalik eta bermerik handienarekin gozatzeko. Kultura segurua da.

Garai berri batean gaude, 'urruntze soziala' konzeptua txertatu behar dugu ezinbestez, baina hurbiltasunari uko egin gabe. Zainketak garrantzitsuak dira, baina ezin dugu galdu harreman pertsonalek duten balioa. Horregatik, urruntzetik haratago, gertu egoteko unea da, nahiz eta bi metrora izan.

Espazio birtuala oso alternatiba osagarri interesgarria bihurtu da, baina, hala ere, aurrez aurreko esperientziak ordezkaezinak dira, nire ustez. Are gehiago, orain, kulturaren bidez izaten diren eragin-truke pertsonal horiek behar baititugu, izaten ari diren aldaketei aurre egiteko.

Kultura da gogoeta, jakintza, esperientzia, gure oroimenaren sostengua, gure oroitzapen askoren sortzailea den aldetik. Baina kultura gehiago da. Gizartea eta garapena da. Gure kultura-sarea erraz ezagutzeko moduko profesionalek eta lanbideek osatzen dute, hala nola musikariek, koreografoek, artistek, ikertzaileek, eszena-zuzendariak... Halaber, beti ikusgai ez dauden beste batzuek ere osatzen dute: editoreek, itzultzaileek, diseinatzaileek, soinu- eta argiztapen-teknikariek eta errealizadoreek, besteak beste, ezinbestekoak baitira kulturak eta gizarteak aurrera egiteko.

Gizartea gaur egungo kulturarekin lotzeko dugun xedean, hurbiltasunean eta egunerokotasunean jartzen dugu arreta. Denboraldi berri honetan, sormen artistikorako atea zabaltzeko urteko jardunaldia egingo

dugu irailaren 17an. Gonbit egiten dizuegu artistek eta sortzaileek beren praktikak garatzeko, ikertzeko, asmatzeko, entseatzeko, hausnartzeko... dituzten guneetara joatera. Sormen-prozesuak bertatik bertara ezagutzera eta partekatuzera.

Ateak zabaltzeko jardunaldi honen bidez, Zentroaren hamargarren urteurrena ere ospatuko dugu. Hamar urte hauetan, Azkuna Zentroak hainbat etapa izan ditu Aisialdi eta Kultura Zentro gisa zabaldu zenetik, gaur egun arte. Orain, 2019-2023 Programa Proiektuaren bidez, Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentro gisa definitu gara, eta, hala, erantzuna eman diegu etengabe eraldatzen ari den eta gero eta aldakorragoa eta hibridoagoa, askotarikoago eta jasangarriagoa -espero dugu- den gizarte honek dituen erronkei.

Proiektu hau kultura-eragileen eta artisten komunitate batean oinarritzen da, eta haien jakintzek, praktikek, proiektuek eta esperientziek gaur egungo jalkina sortu dute, XXI. mendeko kulturaren plataforma berri gisa proiektatzeko dugun oinarria.

Horrek guztiak pentsarazten digu urteurren hau ospakizun bat baino zerbait gehiago dela: Zentroa jatorrian izan zen horren eta iritsi nahi duen helmugaren arteko trantsizio gisakoa da, programazio kulturalaren bidez egina. Programazioa berariaz prestatu da elkarrengandik hurbil egoteko behar sozial horri erantzuteko, eta loturak sortzeko eta artearen bidez eraldatzeko betebeharrak arduratsutik planteatu.

Gonbit egiten dizuegu zinemara itzultzera, gure erakusketa berriak ezagutzera, Mediatekako gune berrietan ibiltzera eta Lantegiaren, gure ideia-laborategiaren berritasunak arretaz jarraituzera. Zuen zain gaituzue.

# Sorkuntza artistikorako ateak zabaltzeko eguna



Sorkuntza artistikorako atea zabaltzeko eguna ospatuko da irailaren 17an. Une egokia izango da, Zentroak sorkuntzari laguntzeko duen programaren bidez, gaur egun proiektuak garatzen ari diren artistekin partekatzen eta esperimentatzen.

Azkuna Zentroa kultura garaikidera sartzeko plataforma bat da artistentzat eta sortzaileentzat, gizartearekin elkarriketan. Toki dinamiko bat, sormena eta ikerketa artistikoa bultzatzeko baldintzarik onenekin.

Egun horretan Alhóndigara hurbiltzen diren bisitariak bertatik bertara ikusi ahal izango dituzte sortzaileek nola egiten duten beren lan artistikoak prestatzeko, entseatzeko, gogoeta egiteko, ezabatzeko, berrartzeko eta taldeko kideekin eta publikoarekin partekatzen; nola dauden presente Zentroaren egunerokotasunean. Sortzailea hor egoteak balio gehiago ematen dio espazio publikoari, espazioan esku hartzen duelako, eta programazio hedatua eskaintzeko aukera ematen digulako; helburua ez da ikuskizun bat eskaintzea, baizik eta prozesua, praktika, aurreko eta ondoko egoera, interes publikoaren berme gisa.

Sorkuntza artistikoarekin urtero egiten den topaketa honek esanahi berezia du aurten. Azkuna Zentroak hamargarren urteurrena bete du 2020an; hamarkada erabakigarria izan da proiektu hau finkatzeko. Beraz, atea zabaltzeko jardunaldi honetan,

SORTZAILEEK BEREN LAN-  
PROZESUAK PARTEKATZEN  
DITUZTE PUBLIKOEN  
KOMUNITATEEKIN: NOLA  
EGITEN DUTEN ENTSEATZEKO,  
HAUSNARTZEKO,  
EZABATZEKO, BERRARTZEKO  
ETA ERAKUSTEKO. NOLA  
DAUDEN PRESENTE  
AZKUNA ZENTROKO  
EGUNEROKOTASUNEAN.

komunitate publiko guztiekin ospatuko da une hori, eta gogora ekarriko da zer eragin izan duen Azkuna Zentroak, eta zer proiektu duen etorkizunari begira, XXI. mendeko plataforma berri gisa, gizartea kultura garaikidearekin lotzeko forma artistiko berrien bidez.



# EGITARUA

## BOS

### Musika loturak

Azkuna Zentroak eta [Bilbao Orkestra Sinfonikoak \(BOS\)](#) antolatutako [Musika loturak](#) zikloa kontzertu honekin itxiko da.

12:00 eta 20:30. Kulturen Ataria

---



## Txaranga Urretabizkaia

Arratsaldean, Kulturen Atarian hasiko dira ekitaldiak, performancea eta musika esperimentalaren tradizioa uztartzen dituen haize-instrumentuez osatutako [Txaranga Urretabizkaia](#).

17:00. Kulturen Ataria

---



## Amparo Badiola, Gema Intxausti eta Susana Talayero *Scriptbarik*

Gero hainbat ibilbide egingo dira [Lantegaitik](#), hau da, Azkuna Zentroaren hirugarren solairuan kokatutako [Ideien Laborategitik](#). Arte eta sorkuntzako habitat horretan, [Amparo Badiola](#), [Gema Intxausti](#) eta [Susana Talayero](#) artistek [Scriptbarik](#) lankidetzaproiektua aurkeztuko dute. Proiektua bi hilabetez egingo da [BAT Espazioan](#) izango den egonaldi-laboretegian. Esperimentu hau artikulatuz joango da hiru artisten diziplinen arabera: dantza, eskultura eta pintura.

17:00, 18:00, 19:00. Lantegia 2. BAT Espazioa

---



## Iván Gómez

### *La prospección de Kairós (Kairosten prospekzioa)*

Lab 1 espazioan, Iván Gómez artista *La prospección de Kairós* proiektua lantzen ari da: gailuaren eta 'tartean' ideiaaren edo bitartekotasunaren gaineko lankidetzazko ikerketa baterako gailu metodologikoa. Proiektuaren fase honetan, helburua da pentsamendurako espazio bat eraikitzea lan taldeen artean.

17:00, 18:00, 19:00. Lantegia 2. Lab 1

---



## Sra. Polaroiska

Artista Az-Kideak

### *Emakume jakintsuen kontseilua*

Sra. Polaroiska (Alaitz Arenzana y Maria Ibarretxe), Artista Az-Kideak *Emakume jakintsuen kontseilu* bat egingo du. Azkuna Zentroan garatzen ari den proiektu artistiko horren ardatza genero-ikuspegitik erreferenteak sortzea eta ahalduntzea da. Topaketak proposatzen ditu emakume zaharrekin, hainbat esparrutako profesionalekin. Jakinduria biltzeko eta partekatzeko proposamen bat da.

19:00. Lantegia 1

---



## Tana Garrido

### *La tierra llama (arribar)*

Tana Garridok, Azkuna Zentroko artista egoiliarra (2019 Praktika Artistikoetan), joan den urtean Kuban eta Azkuna Zentroan izandako egonaldian egindako azken ikus-entzunezko piezaren work in progress-a aurkeztuko du, emanaldi berezi eta berri batean.

18:00 eta 20:00. Golem Alhóndiga Zinemak

---



## Tractora Koop. E.

Azkuna Zentroko kolektibo egoiliarra  
**Kinu#2**

Jardunaldiari amaiera emateko, Azkuna Zentroko egoiliar berria den *Tractora Koop. E.* taldeak *Kinu#2* proiektuaren lehen proiektzioa egingo du. *Maddi Barber* artista izango da gonbidatua, *Gorria* (2020) ikus-entzunezko piezaren proiektzioarekin.

21:30. Terraza

---



Maddi Barber. *Gorria* (2020)



## Ateak zabalik jardunaldia

Irailak 17, osteguna

Sarrera dohainik gonbidapenarekin, jaso Az Infon

---

12:00. Ekitaldi instituzionala

Arte bizien pieza

Musika loturak. [Bilbao Orkestra Sinfonikoa](#) (BOS). Kontzertua

17:00. Kulturen Ataria

[Txaranga Urretabizkaia](#)

17:00, 18:00 eta 19:00. Lantegia 2

Ibilbideak (40') honako hauen lana ezagutzeko:

[Susana Talayero](#), [Amparo Badiola](#) eta [Gemma Intxausti](#). *Scriptbarik*

[Iván Gómez](#). *La prospección de Kairós*

18:00 eta 20:00. Golem Alhóndiga Zinemak (2 emanaldi bereziak)

[Tana Garrido](#). *La tierra llama (arribar)* (20-30')

18:00 - 19.30. dendAZ

Jarduerak [Fatxada Proiektua](#). Diseinua, ilustrazioa eta komikia-ko artistekin eta diseinatzaileekin

19:00. Lantegia 1

[Sra. Polaroiska](#). *Emakume jakintsuen kontseilua*

20:30. Kulturen Ataria

Musika loturak. [Bilbao Orkestra Sinfonikoa](#) (BOS). Kontzertua

21:30. Terraza

[Tractora Koop.](#) E. [Kinu#2](#). [Maddi Barber](#). *Gorria* (2020)

Egun osoan:

Bisita gidatuak [Steve Paxton](#). *Drafting Interior Techniques* erakusketa eta Mediateka ikusteko

# Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

Artistak, komisarioak, kultura-eragileak... Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin. Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurrean abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.



Mabi Revuelta  
Artista



Susana Blas  
Artista



Gema Intxausti  
Artista



Amparo Badiola  
Artista



Romain Bigé & João Fiadeiro  
Komisarioak, dantzariak eta koreografoak



Susana Talayero  
Artista



Tana Garrido  
Artista



Macarena Recuerda  
Shepherd  
Artista



Mario Paniego  
Artista



Ivan Gómez  
Artista



Steve Paxton  
Dantzarria eta koreografoa



Maddi Barber  
Artista



Txaranga Urretabizkaia  
Artista musikalka

© United States Artists



Néstor Lizalde  
Artista



Leticia Paschetta  
Artista



Hernán Quilpidor  
Artista



Asier Irazabal  
Artista

© Basques On Decks



Fernando Carvalho  
Soinu-artista



Josune Urrutia  
Artista



Pernán Goñi  
Artista



OSA + MUJIKA (Jaiotz  
Osa, Xabier Mujika)  
Konpainia artistikoa



Miguel A. García  
Musikaria



Erik Nielsen  
Bilbao Orkestra Sinfonikoko  
(BOS) Zuzendari titularra

© Berliner Festspiele



Carolina Mendoça  
Dantzaria

© Pablo Zamora



Juan Loriente  
Aktorea



Alos Quartet  
Laukote musikala



Oscar Gómez Mata  
Artista Az-Kidea



Oier Iruretagoiena  
Musikaria



Sra. Polariska  
(Alaitz Arenzana & María Ibarretxe)  
Artista Az-Kideak



Aimar Arriola  
Ikertzaile Az-Kidea







ARTE GARAIKIDEA / ERAKUSKETA  
URR. 14 > URT. 24

# Mabi Revuelta

*Acromática. Una Partida Inmortal*  
(*Akromatikoa. Partida Hilezkorra*)

Komisarioa: Susana Blas

Tabacalera. Promoción del Arterekin (Madril) koprodukzioan



ERAKUSKETAK MABI REVUELTAREN (GURE ARTEA 2016 SARIA) BI HAMARKADA BAINO GEHIAGOKO IBILBIDEA BERRIKUSTEN DU, ETA ALDI BEREAN BERE AZKEN PROIEKTUA AURKEZTEN DU, **ACROMÁTICA**, HISTORIAKO XAKE PARTIDARIK BIKAINENETAKO BATEAN INSPIRATUA: PARTIDA HILEZKORRA (1851).

Urriaren 14ean inauguratzen da *Mabi Revuelta* (Bilbo, 1967) artistaren *Acromática. Una Partida Inmortal (Akromatikoa. Partida Hilezkorra)* erakusketa, arte garaikidearen historialaria eta komisarioa den *Susana Blas* (Madril, 1969) komisarioarekin.

Xakea hari eroale gisa hartuta, erakusketak artistaren ibilbidea berrikusten du, *Acromática* aurkeztearekin batera, erakusgaiari izenburua ematen dion proiektu argitaragabea. Ibilbidea lehen espazioan (*Apertura / Irekiera*) hasten da, eta bertan kokatzen da *Naturaleza muerta con perlas negras*, aurrez berrikusitako eskultura-pieza bat, erakusketaren tonu poetikoa markatzen duena. Bigarren espazioan (*Medio juego /Joko erdia*), *Acromática* proiektua osatzen duten hainbat lan zabaltzen dira. Proiektu hau historiako xake-partidarik artistikoenetako batean oinarrituta dago: 1851n Adolf Anderssen eta Lionel Kieseritzkyren artean jokaturako 'Hilezkorra'. Azkenik, azken espazioan (*Fin de partida / Partida amaiera*), *Línea de tiempo (Denbora-lerroa)* dago: artistaren ibilbidearen laburpena, xakearen lau arotan oinarritua: erromantikoa, zientifikoa, hiper-modernoa eta dinamikoa.

Mabi Revueltaren hitzetan, «Acromática piezen seriean, behin eta berriz itzultzen naiz jokoen unibertsora, oraingoan xakea eta haren arauen eta mugimenduen multzo berezia inspiraziotzat hartuta. Bi koloreko eremu txiki batean, munduaren ordenaren eta izaki eta gauzen patuaren hedapena ikusten dugu, izugarria eta larria. Eskulturaren, zinemaren, dantza garaikidearen, musikaren eta idazketaren bidez, jokoen erregearen kontakizuna egiten saiatzen naiz, haren mugetatik hara joz, metafora artistiko, intelektual, beliko eta bitalen bidez artikulatua».

Susana Blas komisarioak deskribatzen duen moduan, «Alderdi antologikoak artistaren ibilbidea berrikusten du, eta lau kategoriatan antolatzen ditu bere lana, xakearen historiako aroak definitzen dituztenak eta, aldi berean, diziplina unibertsal horri aurre egiteko eta jokatzeko lau aro direnak».

Mabi Revueltaren obrek gogoeta egiten dute bere lanean hasieratik agertzen diren gai unibertsalei buruz: errealitate-fikzio harremanak, generoen iragazkortasuna (literatura, arte eszenikoak, eskultura, marrazketa, ikus-entzunezko arteak), hezkuntza artistikoari buruzko ikerketa eta estrategia didaktikoen bilaketa ekintza artistikoa gizarte-aldaketaren eragile gisa baloratzeko.

Erakusketarekin batera *Acromática. Una Partida Inmortal* liburu-katalogoa dago, dendAZ eta dendaz.azkunazentroa.eus-en eskuragai (2020ko urria). Informazio gehiago 62. orrialdean

////////////////////////////////////

Urriak 14 > Urtarrilak 24

Erakusketa Aretoa  
Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

**Ordutegia**

Astelehenetik igandera:  
11:00 - 19:00

////////////////////////////////////

**Bisita gidatuak (45'):**

Ostegunero: 18:00  
Sarrera dohainik aurrez izena emanda: Az Info / 944 014 014

Gutxienez: 4 pertsona  
**Gehienez: 10 pertsona**

////////////////////////////////////

Koprodukzioa:



*Acromática. Una Partida Inmortal*  
Azkuna Zentroa - Alhóndiga  
Bilbao eta Tabacalera Promoción del Arte (Madril) zentroen arteko koprodukzioa da. Tabacalera La Principal aretoa izango da 2021eko otsaillean.

# Steve Paxton. Drafting Interior Techniques

Lisboako Culturgest-rekin lankidetzan

*Steve Paxton. Drafting Interior Techniques* erakusketa azken txanpan sartu da. Irailaren 20ra arte egongo da ikusgai munduko dantza garaikidean eragin gehien duen koreografoetako baten ondareari buruzko atzera begirako hau. Contact Improvisation teknikaren sortzailea izateaz gain, figura erabakigarria da arte garaikidearen pentsamenduan.

Erakusketa-proiektua aitzindaria da estatuan, eta Culturgest Lisboarekin lankidetzan garatzen da. 2019ko martxotik uztaileira arte izan zen lehen aldiz ikusgai Lisboan, eta **João Fiadeiro** eta **Romain Bigé** ditu komisario. Azkuna Zentroan, *Steve Paxton. Drafting Interior Techniques* hazi eta eboluzionatu egin da, pieza berriekin eta performanceak, tailerrak eta nazioarteko mintegi bat dituen programa publiko batekin; hori joan den uztailean egin zen, Steve Paxtonek berak parte hartu zuen.

Marko horretan, **Mal Pelo** dantza-konpainia katalanak *On Goldberg Variations/Variations* ikuskizuna aurkezten du 2021eko urtarrilean, lengoaien ildoaz eraturako sare bat, non denek bat egiten dute J.S. Bachen obraren inguruan ehun bat osatzeko. Dantza, John Berger-en ahotsa, testu propio batzuk, soinu-bandaren soinu manipulatu eta foku-anitza, zuzeneko ahotsa eta bideo-proiekzioak elkartu dira, Mal Pelok J.S. Bachen unibertsoa egin duen gerturatze hau eratzeko.



Malpelo. Goldberg Variations/Variations

IGANDEA, IRAILAK  
20A ARTE IREKITA.

//////  
Otsailak 20 > Irailak 20

Erakusketa Aretoa  
Sarrera dohainik

//////  
**Ordutegia**

Astelehenetik igandera:  
11:00 - 19:00

//////  
**Programa Publikoa**

Mal Pelo  
*On goldberg variations /  
Variations*  
Urtarrila 2021

//////

---

## Culturgest

*Steve Paxton. Drafting Interior Techniques* Culturgest-en (Lisboa) jatorrizko ideia bat da, non 2019ko martxoan eta uztailean bitartean aurkeztu zen lehen aldiz.

ARTE GARAIKIDEA / INSTALAZIOA  
UZT. 17TIK AURRERA

# Leticia Paschetta

## *Paisaia ludiko zuria. Laztanen jokoa (Caresses Playscapes)*

Leticia Paschetaren *Paisaia ludiko zuria. Laztanen jokoa*, instalazioak artearen, paisaiaren eta jolasaren arteko mugak aztertzen ditu, espazioaren bidez esperientzia bizia sortzeko, non zentzu artistikoa murgiltze-ekintzatik sortzen baita, eta paisaia, aukera-mundu, esanahi, sentsazio eta askatasun-estimulu infinitu bihurtzen.

Espazioa gorputzarekin modelatzen da, eta eutsita geratzen da azala laztantzen duten oihal leunen artean, baso zuri apartsu bat, dinosauro baten eskeletoa, funtsezko eta existentzialenean babesten duten babeslekuak.

Obrak bat egiten du bera zeharkatzen duenarekin, mugak disolbatu, eta atzealdea eta figura urtu egiten dira esperientzia hutsa den 'zuri gaineko zur' batean.



**LETICIA PASCHETTA**  
arkitektoa, Diseinuko  
Masterduna (UNAV),

unibertsitateko irakaslea, 'Paschetta + Cavallero Arquitectos' estudioaren sortzailea eta 'Paisajes Lúdicos' markaren sortzailea da. Bertatik, artea, diseinua eta egiturazko berrikuntza uztartzen ditu, eredu industrialak eta asmakuntza patenteak garatuz. Bere lanak saritu eta nazioarteko hedabideetan argitaratu izan dira. Duela gutxi, HUB bidez hautatu zuten DesignWeek 2019ko Bartzelonako Nazioarteko Pabiloia egiteko.

MEDIATEKA BBK.  
LEHENENGO  
SOLAIRUKO  
ERAKUSKETA  
ARETOA.

Uzailaren 17tik aurrera  
Egunero

10:00-20:00

Mediateka BBK. 1. solairua

Sarrera dohainik

### FITXA ARTISTIKOA

**Idea eta garapena:**

Leticia Paschetta

**Egiturazko eta eraikuntzako garapena:**

José Cavallero

**Laguntzailea:**

Soledad Grossi

**Eraikuntza koordinatzea:**

Natascha Gergoff Bengoa eta  
Guillermo Weiskal

 [paisajesludicos.com](http://paisajesludicos.com)

# Amparo Badiola, Gema Intxausti eta Susana Talayero

*Scriptbarik*

ERAKUSKETAK DANTZA,  
ESKULTURA ETA PINTURA BATZEN  
DITU, ESPERIMENTU ITXURAKO  
ERAKUSKETA-PROIEKTU BATEAN.  
PROIEKTU HORI ERRITMO  
ORGANIKOAN ETA PIXKANAKA  
ANTOLATUKO DA, ARTISTA  
BAKOITZAK BESTEEN LANEAN  
ESKU HARTUZ.

# SCRIPTBARIK

AMPARO BADIOLA - GEMA INTXAUSTI - SUSANA TALAYERO

Amparo Badiolak, Gema Intxaustik eta Susana Talayerok *Scriptbarik* lankidetzeta-proiektua aurkeztuko dute Lantegia, Ideien Laborategia. Proiektua bi hilabetez egingo da BAT espazioan izango den egonaldi-laborategian.

Lan hau esperimentu bat da, aurrez pentsatutako ideiarik eta helburu zehatzik gabea, eta erritmo organikoan artikulatuz joango da, proiektuan parte hartzen duten hiru artista egilekideen lan-praktika osatzen duten diziplinen arabera: dantza (Amparo Badiola), eskultura (Gema Intxausti) eta pintura (Susana Talayero).

Proiektua artista bakoitzak besteen lanean duen esku-hartzean oinarritzen da, eta, horretarako, zenbait ariketa zehatz proposatzen dira, egiteko prozesuan bertan proiektua osatuko dutenak.

Artisten arabera, «*Scriptbarik* esperimentuaren gakoa da ideia, objektua eta besteren ekintza askatasunez eskuratzea, eta gure lan-praktikak berrantolatzea, helburu komun batean, gobernurik gabeko ekoizpenean biltzeko. Kaos berrantolatua, gorputzari eta haren deribei dagokienez».

////////////////////////////////////  
Irailak 1 > Azaroak 1  
Asteartertik larunbatera  
16:30 - 20:30  
Lantegia 2. BAT Espazioa  
Sarrera dohainik  
////////////////////////////////////



**AMPARO BADIOLA** (Bilbo, 1958) Medikuntzan lizentziaduna da UPV/EHU. Dantza-ikasketa ez-arauituak egin zituen Bilbon eta Londresen 1988tik 2003ra arte, eta Londresen bizi da. Mugimenduari buruzko ikerketarekin eta lan didaktikoarekin bateratzen du sorkuntza-lana. Azken sorkuntza eszenikoa *Palabras Invisibles* da, eta London Elixir Festival-en eta Vitoria-Gasteizko Baratza aretoan aurkeztu zuen, 2014an.

**GEMA INTXAUSTI** (Gernika-Lumo, 1966) eskulturaren, marrazkiaren eta film-narrazioaren arloan egiten du lan. UPV/EHU Arte Ederretako ikasketak egin ondoren, Londresera joan zen bizitzera eta han Zinema ikasi zuen. Gure Artea saria eman zioten 2018an, ibilbide artistikoa aintzatesteko. Orain dela gutxi, lanak erakutsi

ditu Bilboko La Taller-en (2019) eta Carreras Múgica-n (2016), eta, berriki, Entre la multitud, observando el arresto aurkeztu du Gasteizko Artium-en (2020).

**SUSANA TALAYERO** (Bilbo, 1961). Pinturaren eta marrazkiaren inguruan egiten duen lana bideora zabaltzen du noizean behin. UPV/EHU Arte Ederretan lizentziatu ondoren, Erromara joan zen, eta han bizi izan zen 1986tik 1996ra. Orain dela gutxi, Carreras Múgica (2019) eta Bilboko Arte Ederren Museoan (2016) erakutsi ditu lanak. Amparo Badiolarekin lankidetzan, L'occasione proiektua koordinatzen du, Bilbon topaketa publikoak egiteko ekimena. Duela gutxi, Arte Bisualen Vila de Santanyi VII. Saria jaso du, Mallorcan (2019).



# Néstor Lizalde

## Akelarre elektrikoa

Interbentzio artistikoa terrazan

Egunaren argitan ezkutatutako arimen gisa, [Nestor Lizalde](#) artistaren *Akelarre elektrikoa* gorpuztu egiten da, gaueko mantuak Bilboko zerua estaltzen duen heinean.

Egunero, ilunabarrean, arte elektronikoko pieza hau aktibatu egiten da, eta terrazako arkitekturan esku hartzen du, ordenagailuz kontrolatutako argiztapen-sistema baten bidez. Argi-matrize bat, Bilboko eguraldirako prestatuta, espazio berezi honetako ezaugarri guztiez baliatzen dena: adreiluzko arkuen jarrera modularraz.

«Eguzkia ostenduta, argiak azalduko dira iluntasunaren babesean. Argi-matrizeak mugiarazi egingo du egitura, erritueterako espazio gisa paratutako jatorrizko 44 arku eraturako atala. Su elektrikoak lehian arituko dira elkarren artean, beren irudikapenak deskribatzeko, leize-zuloko mitoen gisa. Itzalek eta distira dirdaitsuek dantza egingo dute, gauaren mihisean formak zizelkatzen», aurreratzen du Nestor Lizalde.

ARRATSALDERO  
20:00ETATIK  
AURRERA, HIRIKO  
HAINBAT LEKUTATIK  
IKUSGAI.



Uztailak 1 > Irailak 20  
Egunero

20:00 - 23:00  
Terraza

Instalazioa bisitatzea:  
[kontsultatu.azkunazentroa.eus](http://kontsultatu.azkunazentroa.eus)  
webgunean



 [nestorlizalde.com](http://nestorlizalde.com)



**NÉSTOR LIZALDEREN** lanak artearen munduan baliabide berriak deituta bidez azaldu diren aukera berriak ikertzen ditu. Profil tekniko nabaria duen artista honek hizketaldi

bat sortzen du esperimentazio teknologikoaren eta tradizio artistikoaren artean, eta elkarketa horretatik sortzen diren mintzairak ikertzen ditu. Ikerketa praktikoa egiten du, ikusentzunezko forma eta euskarri berrien sorkuntzan oinarrituta, programazioa, diseinu elektronikoa, fabrikazio digitala eta irudiko sistema optikoak erabiliz. Proiektu hauen bidez, imajinario bat eraikitzen du, zientzia fikzioaren eta surrealismoaren arteko bide erdian, murgiltzeko unibertso bat, kezagarria eta, aldi berean, hipnotikoa.

*Akelarre elektrikoa* Bilboko hainbat tokitatik ikus daiteke, baita in situ ere, Zentroko terrazan ibilbidea egiten duen bisita gidatuen programaren bidez. Informazio gehiago 76. orrialdean.

# Asier Irazabal & Hernán Quipildor

## *La llave del alma (Arimaren giltza)*

Ilustrazioa

Beldurra, denbora eta aukera. Azkuna Zentroko sarrera nagusiko hiru ikurrak, «sentitzen, pentsatzen eta izaten» ikasteko hausnarketara gonbidapena dira, [Asier Irazabal](#) eta [Hernán Quipildor](#) artisten eskutik.

*La llave del alma* lana da artistak berrikuntza eta sormena partekatzeko asmoz garatzen ari diren Aita proiektuaren lehen adierazpen bisuala. Alde horretatik, *La llave del alma* lanak proposatzen duen hizkuntza sinbolikoa trebetasun enpatikoa eta arimaren teknologia garatzeko erabili daiteke, hamabi ikurren bidez. Sinbolo bakoitzak kontzeptu primario bat irudikatzen du, hala nola beldurra, aukera, espazioa, itxaropena, heriotza, denbora, gorrotoa, maitasuna, kontzientzia, izatea, argia eta esanahia. Sinbolo horiek erabili behar dira esanahi garbia duen hizkuntza batera iristeko, gizaki gisa elkar hobeto ulertzeko.

LA LLAVE DEL ALMA  
ZENTROKO BESTE  
GUNE BATZUETARA  
ZABALTZEN DA, HALA  
NOLA EGUZKIAREN  
PANTAILARA ETA  
DENDA-Z-ERA.

Uztailak 15 > Urriak 1

Arrikibar Plaza (Fatxada)

 aita.media



**ASIER IRAZABAL** (Bilbo, 1978), pop kulturaren aritzen errealeren estetikan aritzen den artista bat da. Egun bizi den Londresen osatu zituen ikasketak, Westminster-eko Unibertsitatean, eta telebistan, bideoan eta Interneten espezializatu zen. Gaur egun, *Aita* proiektua garatzen ari da, Hernán Quipildor-ekin batera, keinu bateratu gisa, eta hori ere bizimodu bihurtu da.



**HERNÁN QUIPILDOR** (Argentina, 1972), artista autodidakta da. 2016. urtean *El gesto* argitaratu zuen, kontzientziaren inguruko kontzeptuak eta errealizazioak partekatzeko asmoz idatzitako liburua. Orduetik, *Aita* proiektu artistikoa hartu du ardatz, Asier Irazabalekin batera, liburuan aurkeztutako edukia ikasteko modu berriak aztertzeko.

Ilustratzaileek irudi-orrietara, postaletara eta beste artikuluko batzuetan islatu dute *La llave del alma-ren (Arimaren giltza)* sinbologia; eta *dendAz*. **This basque design**-en daude eskuragarri.

# Pernan Goñi

## *Emakume apartak*

Ilustrazioa

Pernan Goñik Azkuna Zentroko pareta nagusian erakutsiko du bere lana, *Fatxada Proiektua*. Diseinua, ilustrazioa eta komikia proiektuaren barruan.

Urriaren 1etik abenduaren 15era arte, *Emakume apartak* proiektuaren hiru irudirekin hartuko du parte espazio horretan. Pertsona-erretratuak dira, batez ere emakumeenak, jakin-mina eragiten baitiote autoreari. Ikerketa-prozesu baten ondoren, Pernan Goñik modu esperimentalean marrazten ditu erretratuak, artxibo fotografikoetatik abiatuta.

Hala, bere intereseko arloetan lan egiten du —feminismo, literatura, arte, zientzia, kirola eta gaurkotasan arloetan—, eta Virginia Woolf edo Hedy Lamarr bezalako pertsonaia historikoak eta Greta Thunberg-en moduko gaur egungo pertsonaia ospetsuak erretratatzeko. Autorearen arabera, «ikerketa pertsonal honen xede diren pertsona guztiek berriro, zirikatuko edo aurre egin diote ezarritako sistemari, oso modu xume eta erabilgarriari, edo modu erradikalean. Asmoa da irizpideak nahastea, nabarmendu ez diren ahots eta jarrerara gehiago sartzeko».

PERNAN GOÑI  
ILUSTRATZAILE  
ETA 'GRAPHIC  
REORDER-AK'  
FEMINISMOAREN  
INGURUKO  
HAUSNARKETA  
PLANTEATZEN DU  
HIRU ERRETRATU  
ILUSTRATUREN  
BIDEZ.



**Urriak 1 > Abenduak 15**  
**Arrikibar Plaza (Fatxada)**



 [pernangoni.com](http://pernangoni.com)

 [@pernan](https://twitter.com/pernan)

 [@PernanGoñi](https://www.facebook.com/pernan)

 [Pernan](https://vimeo.com/pernan)

 [Pernan Goñi](https://www.youtube.com/pernan)





# Josune Urrutia Asua

## *Compendio colectivo sobre cáncer (Minbiziari buruzko bilduma kolektiboa)*

Josune Urrutia artista grafikoak *Compendio colectivo sobre cáncer (Minbiziari buruzko bilduma kolektiboa)* aurkezten du.

Artista-liburu baten eta zientzia-lan baten artean dagoen bilduma honek hiztegi ilustratuaren antzeko formatua erabiltzen du, tradizio luzekoa medikuntzaren historian. Argitalpen korala da, artistak irudiztatua, eta Vilanovako Arnau Ospitaleko Onkologia Erradioterapikoko Zerbitzuko ospitale-komunitate osoak hartu du parte. Hitzak definitzen eta bilduma edukiz hornitzen lagundu dute.

*Compendio colectivo sobre cáncer* Radiació++++ proiektuaren barruan dago, Lleidako Centre d'Art la Panerak osasun-arloan antolatzen dituen arte-egonaldien programaren barruan.

ARTISTA LIBURU  
BATEN ETA LAN  
ZIENTIFIKO BATEN  
ARTEAN, COMPENDIO  
COLECTIVO  
SOBRE CÁNCER  
LIBURUA ARTISTAK  
ILUSTRATUTAKO  
ARGITALPEN KORAL  
BAT DA, LLEIDAN  
DAGOEN CENTRE D  
'ART LA PANERAREN  
RADIACIÓ+++  
PROIEKTUAREN  
BARRUAN.



Irudia: Alejandro Nafria

**JOSUNE URRUTIA.** Artista, marrazkilaria, ilustratzaile eta diseinatzaile grafiko honek interes berezia du marrazketa komunikaziorako eta sozializaziorako funtsezko

baliabide gisa behar duten prozesuetan eta tresnetan: medikuntza grafikoak osasun-munduan, graphic recording-a, mapa bisualak eta kaleko marrazketa kolektiboko prozesuak. Duela gutxi beka bat izan du Angoulêmeko (Frantzia) Maison des Auteurs-en, emakumeei, arteari eta minbiziari buruz duen komiki-proiektuarekin.

Hauetxek dira haren argitalpenik esanguratsuenetako batzuk: *Compendio colectivo sobre cáncer* (2019), Breve diccionario enciclopédico ilustrado de *MI cáncer* (2017) eta *Así me veo* (2015).



Urriak 20, asteartea

19:00

Mediateka. TK201

Sarrera dohainik

Informazio gehiago:  
[azkuna.zentroa.eus](http://azkuna.zentroa.eus)



 [josunene.com](http://josunene.com)

# Komisariotzaren Nazioarteko Sinposioa

## *Erakusketaren saiakera (1997-2017)*

LAUGARREN TOPAKETA HONEK ADIBIDE  
BATZUK AZALTZEN DITU, NON ERAKUSKETA  
TRESNA KRITIKO GISA AGERTZEN DEN,  
GURUTZATZEKO ETA ELKARGUNE PUBLIKO  
BAT SORTZEKO HELBURUA DUEN MAKINA  
DISKURTSIBO GISA.

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao eta Bulegoa  
z/b erakundeek *Erakusketaren saioa (1977-2017)*  
Komisariotzaren Nazioarteko Sinposioaren laugarren  
topaketa antolatzen dute, 1977 eta 2017 bitartean izan  
diren erakusketa zehatzak aztertzen dituen. Atzera begira  
jarri nahi da, orain dela gutxiakoak diren baina gaur egun  
ere oihartzun egiten duten eta oraina ulertzeko lagungarri  
zaizkigun erakusketei, testuei eta gertaerei begira.  
Oraingoa, 1997-2007 aldiari buruzkoa.

Orain arte hiru topaketa egin dira. Lehena, 2016. urtean,  
hitzaurrearen formatuan; eta beste biak, 2017. eta 2019.  
urteetan, 1977. eta 1987. urteen arteko eta 1987. eta  
1997. urteen arteko hamarkadei eskainiak, hurrenez hurren.  
Laugarren topaketa, urriaren 21 eta 22an izango da, eta  
aurrez aurre edo online formatuan.

Gonbidatutako txostengileez gain, lau komunikazio  
aurkeztuko dira, hain zuzen, uztailaren 15etik irailaren 1era  
bitartean aurkezten diren artean aukeratutakoak.

Sinposioaren aurretik tailer bat egingo da urriaren 6,7,13  
eta 14ean, sinposioko edukiekin zerikusia duten materialak  
lantzeko. Jarduera hauetako bat [Peio Aguirrek](#) koordinatuko  
du eta beste hirurak, [Bulegoa z/b](#)-eko kideek.

////////////////////////////////////

### **Topaketa**

Urriak 21 eta 22  
Asteazkena eta osteguna

### **Tailerrak**

Urriak 6 eta 7, 13 eta 14  
Astearteak eta asteazkenak

Informazio gehiago eta izen  
emateak: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

////////////////////////////////////

### **Salneurriak:**

Sinposioa (2 egun) + 4 tailer:

120€ /95€ Az Txartelarekin

Sinposio presentziala (2 egun):

85€ /70€ Az Txartelarekin

Sinposioa online (2 egun):

60€ /50€ Az Txartelarekin

### **Deskontuak\*:**

- Matrikularen % 50 estaltzen duten 30 laguntza hauentzat:
- 2019ko edizioan parte hartutako pertsonentzat
- 30 urtetik beherakoentzat edo 65 urtetik gorakoentzat
- Ikasle, irakasle eta artista AZ-kideentzat
- ICOMeko kideentzat
- Doako sarrerako 10 laguntza langabezia dauden pertsonentzat edo DSBE jasotzen dutenentzat, izena eman ondoren behar bezala egiaztatuta

\*Ezin dira metatu saio presentzialetarako.

////////////////////////////////////

## Txostengileak:



Inud.: CCCB

### YAIZA HERNÁNDEZ.

Ikertzailea eta unibertsitateko irakaslea Goldsmiths University of London-en. Aurretik, irakaslea izan da Central Saint Martins-en (University of the Arts London) (2013-2019), eta MACBAko Programa Publikoaren buru, CENDEACEko zuzendaria eta CAAMEko komisarioa izan da.



Inud.: arteinformado

**LISETTE LAGNADO** (Kinshasa, 1961). Ikertzailea, arte-kritikaria eta komisario independentea, eremu publikoan soziologia eta arkitektoekin lankidetzan aritzeko estrategietan interesa duena. Filosofian doktorea da São Pauloko Unibertsitatetik (2003), 2006an São Pauloko 27. Nazioarteko Arte Biurtekoaren komisario nagusia izan zen. Gaur egun, Berlingo 11. Bienaleko eta São Paulo Associação Cultural Videobrasil elkarteoko komisario-taldeko kidea da.



Inud.: ARTEZ

**MARIA LIND** (Stockholm, 1966), komisarioa, idazlea eta irakaslea, Stockholm eta Berlinen artean bizi da. Tensta Konsthall, Stockholm (2011-2018); Gwangjuko 11. biurtekoa (2016); Center for Curatorial gradu-programa, Studios Bard College (2008-2010); laspis, Stockholm (2005-2007); eta Municheko Kunstvereineko (2002-2004) zuzendaria izan da. 1998an, Luxenburgoko Manifesta 2 biurteko europar ibiltariaren komisario-kidea izan zen. 2009an Lorpen Kuratorialaren Walter Hopps saria jaso zuen.



Inud.: ARTEZ

**RUTH NOACK** (Alemania, 1964) autorea, kritikoa, hizlaria eta komisarioa da. Artea eta artearen historia ikasi zituen. The Corner at Whitman-Walker-eko zuzendari exekutiboa da Washington DC-n, eta Documenta 12ko komisarioa izan zen (2007). Roger M. Buergelekin batera komisariatutako erakusketen artean hauek daude: *Scenes of a Theory* (1995), *Things We Don't Understand* (2000), *The Government* (2005). Bakarka, besteak beste, *Not Dressed for Conquering - Ines Doujak Loomshuttles/Warpaths* (2012) edo *Notes on Crisis, Currency and Consumption* (2015) erakusketak komisariatatu ditu.



Inud.: Prrekarriart

**AZUCENA VIEITES** (Hernani, 1967). Artista. Banakako erakusketen artean hauek daude: *Hey Baby!*, Box 27, Casal Sollerik (Palma, 2018); *Woollen Body*, Carreras Mújica (Bilbo, 2015) edo *Tableau vivant*, Reina Sofia Arte Zentroko Museo Nazionala (Madril, 2013). Berlingo 11. biurtekoan dago. 1994an Erreakzioa sortu zuen, arte-praktikaren eta pentsamendu feministaren arteko proposamenak garatzeko ekimena. UCMko eta USALeko Arte Ederretako fakultateetako irakasle kidea da.



Inud.: ARTEZ

**ANA DEVIĆ** komisarioa da eta Zagreben bizi da. 1999an sortutako What, How and From Wod/WHW kolektiboko kidea da. Hauek dira taldeko kideak: Ivet Kiturlin, Ana Deviipkova, Natava Iliipv-a eta Sabina Sabolovič, eta *Abandonan Krvi'* diseinatzaile eta publizista. 2003az geroztik, WHWk Gallery Novaren programa zuzentzen du, Zagrebeko udal erakusketa-aretoa. 2018an, WHWk WHW Akademiya sortu zuen, artista berrien nazioarteko ikasketa-programa berri bat.

Elkarlanean:


**Bule  
goa Z/B**

ARTE BIZIAK / DANTZA **URR. 7** (astz.)

# Osa + Mujika

## *Loser*

AZKUNA ZENTROKO ARTE BIZIEN  
DENBORALDIA OSA+MUJIKA  
KONPAINIAREN **LOSER** LANAREN  
ESTREINALDIAREKIN HASTEN DA,  
2019KO DANTZA GARAIKIDEKO  
EGONALDIAN SORTUTAKOA.  
AZKUNA ZENTROAN ETA  
DANSATELIERS ROTTERDAM  
ZENTROAN LANDUTAKO  
PROIEKTU HAU, HOLANDAKO  
DANTZA GARAIKIDEA  
SORTZEKO ETA ERAKUSTEKO  
ZENTROAREKIN ELKARLANEAN  
ETA TRUKEAN ARITZEKO  
EGINDAKO AKORDIOARI ESKER  
SORTUTAKOAK DIRA.



OSA+MUJIKA konpainia, **Jaiotz Osa** eta **Xabier Mujikaren** topaketa artistikoaren ondorioz sortzen da, sormenezko bi mundu baturik, dantza eta eszenografia/jantziak. *Loser* pieza, hausnarketa bat da milenialen inguruan, beren harreman sozialak, sareekiko duten mendekotasuna eta gizarteak berauengan duten itxaropenen gainean: «Berezia nintzela esaten zidaten, behin eta berriz. Bizitzan nahi nuena lortuko nuela ere esaten zidaten, besterik gabe nahi izate hutsarekin. Errealitateak berehala esnatu ninduen; ez naiz berezia eta ez dut desiratutakoa lortuko nahi izateagatik bakarrik. Bizitza perfektua eta arazorik gabekoa erakutsi beharra eta errealia ez den mundu baten onarpen beharra, mugagabea den hutsunea estaltzeko bidearen bila. Hori da Millenialek sentitzen duguna; kritikatu den generazio honek egia sakona izkutatzen du: zorientasun eza».

Hizkuntza koreografiko oso fisiko baten bidez eta gorputza abiapuntutzat hartuta beti, OSA+MUJIKA konpainiak beraientzat berriak diren espresio moduak arakutzen dituzte, mugimendua eta koreografiaren gain, dramaturgia ere arreta handiz landuz. Artisten hitzetan, «pieza honen helburua, benetako millenial bat aurkeztea da, bere ezaugarri guztiak. Honek, alde batetik, bere amets eta helburuak lortzeko gogoz borrokatuko du, baina bestetik, frustrazioa, etsipena eta amorrua sentituko ditu. Barne gatazka hauen aldaketak erraz nabaritutako dira piezaren eszenetan. Honela, batzuk positibismo eta euforiaz beteta daude, eta besteetan porrotta izango da protagonista».

////////////////////////////////////

## Urriak 7, asteazkena

20:00

Auditorioa

15€ / 12€ Az Txartelarekin

////////////////////////////////////

### FITXA ARTISTIKOA

**Zuzendaritza:**  
OSA + MUJIKA

**Koreografia eta interpretazioa:**  
Jaiotz Osa

**Jantziak eta espazio eszenikoa:**

Xabier Mujika

**Argiztapena:**  
Alvaro Estrada

**Argazkiak eta bideoa:**  
Alvaro Sau

**Lozer cancionen:**  
Gartxot

////////////////////////////////////

 [osamujika.com](http://osamujika.com)

 [osa + mujika](#)

 [@osa\\_mujika](#)



**OSA + MUJIKA** konpainia Jaiotz Osak eta Xabier Mujikak osatzen dute. Osa dantzaria eta koreografia da; Xabier Mujika, berriz, jantzitegi eta espazio eszenikoaren diseinatzailea. Bien artean, istorio bisualak kontatu nahi dituen taldea eratzen dute. Buruan dituzten irudi guztiak sortu nahi dituzte, forma eta zentzua eman, eta gauzatu nahi dituzte, mugimendu aldetik eta ikus-entzunezkoen formatuan.

# Dantzan Bilaka

Sorkuntza koreografikoko prozesuak

2020an, **Dantzan Bilaka** izango da Azkuna Zentroan, produkzio koreografikoaren inguruko laguntzako eta testuinguru-sorkuntzako programa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak bultzatua eta ADDE Euskal Herriko Dantzako Profesionalen Elkarteak koordinatua.

Dantzan Bilaka urte osoan barrena egiten da, tailer irekien bidez, tailer horiek bide ematen baitute dantza-komunitatea elkartzeko, autoaintzatespena lortzeko eta haien praktikei buruz hausnartzeko.

Irailaren 2tik 5era arte, **Carolina Mendoçaren** prestakuntza eta laguntza artistikoa izango da, programa honetan aukeraturako bederatzitako dantza-proiektutarako. Egonaldiaren ondoriozko lanen erakusketa urriaren 9tik 11ra izango da, Azkuna Zentroko hainbat gunetan.

IRAILEAN CAROLINA  
MENDOÇAREKIN  
EGINGO DA  
FORMAZIOA AZKUNA  
ZENTROAN

Urriak 9 > 11  
Ostirala > Igandea

Informazio gehiago:  
[addedantza.org](http://addedantza.org)

irudia: Berliner Festspiele



**CAROLINA MENDOÇA**-ren interesguneak dira ezagutza kutsatzea eta logika desberdinen aurrean zaugarria izatea. Eszena Arteetan lizentziatua da ECA-USPn (Sao Pauloko unibertsitatea) eta Koreografia eta Interpretazioko masterra egin zuen Alemaniako Giesseneko unibertsitatean. Orobat, Carolina kuratore izan zen 2017an Vermelho galeriako Eszena Arteetako VERBO jaialdian eta Videobrasilgo Dantza Denboraldian, biak ala biak Sao Paulon.

# ZUZENKO ARTEAK / MUSIKA ESPERIMENTALA

## URR. 7 (astz.)

# Fernando Carvalho

Hotsetan. Azkuna Zentroko Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa

**Fernando Carvalho** artistak (Lisboa, 1976) urriaren 7an aurkeztuko du aurreko egunetan egingo duen tailerraren emaitza, hor, kontzertua teknikoki eta kontzeptualki prestatzen lan egingo baitu, Ableton Live-ko prozesuen bidez.

Bilbon bizi den konpositore eta inprobisatzaile portugesak musika elektronikoa ekoizten du duela bi hamarkada baino gehiagotik. Ia genero guztietan aritu da, dantza-musikatik hurbilen daudenekin hasi eta esperimentalenetaraino.

Musika-prestakuntzari dagokionez, ia erabat autodidakta izan da. Musika elektronikoarekiko izan duen interes handiaren ondorioz, musika hori ekoizteko aukera tekniko guztiak esperimentatu ditu, eta etengabe jardun du baliabide digitalak, analogikoak eta akustikoak aztertzen bere lana garatzeko.

Hala, artista portugaldar honek pieza desberdinak eta estilo askekoak lantzen ditu, eta haien zehaztasuna eta intentsitatea bilatzen ditu, entzuleari ahalik eta modurik zuzenenean helarazteko. Artistak azaltzen duenez, «ez dut generoen iragazgaitasunean sinesten, eta gustatzen zait batetik bestera ibiltzea, askatasunez fusionatuz».

Fernando Carvalho. Irudia: Basques on Decks



CARVALHOK MUSIKA ELEKTRONIKOKO ETA GENERO EZ-KON-BENTZIONALETAKO EKITALDIETAN PARTE HARTU DU ETA CRYSTAL MINE ZIGILUAN ARGITARATUTAKO ICOSAEDRO IZENENKO BERE AZKEN LANA AURKEZTU DU.



### Kontzertua

Urriak 7, asteazkena

19:00

Lantegia 1

12€ / 10€ Az Txartelarekin

Informazio gehiago:  
[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)



### Ableton Live tailerra

Urriak 5 > 7

Astelehena > Asteazkena

Informazio gehiago: 62. orr.



 [soundcloud.com/fernandocarvalho](https://soundcloud.com/fernandocarvalho)

 [@F.Carvalho.Music](https://www.facebook.com/F.Carvalho.Music)







# Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)

*Zinemaren historiako 50 harribitxi* zikloaren bigarren zatia hastera doa zinematografiako funtsezko arteetako bat ardatz hartuta: muntaia. Orain arte zuzendaritza, gidioa, interpretazioa, musika-zuzendaritza edo argazkiagatik 'ahaztezinak' diren izenburuak programatu dira, baina bigarren zati honetan emaitza ahaztezinak izan dadin muntaia onen transzendentzia bistaratu nahi da, aurreko izenburu guztien muntaia ere bikaina zen arren. Muntaia zinematografikoan nabarmendu diren hainbat emakumeren lana bistaratuko da, gainera.

Beti egon dira hamaika arrazoi Stagecoach ikusteko; John Fordek zuzendu zuen, baina oraingo honetan Dorothy Spencerrri esker sartu da programan, muntaia egin baitzuen Otho Loveringekin batera, lau aldiz izendatu zuten Oscar sarirako eta Elia Kazan, Henry Hathaway, Edward Dmytryk edo Alfred Hitchcockentzako muntatu dizuten filmak daude bere curriculumean, besteak beste.

Anne Bauchensen zeregina ere nabarmena da, script girl figura 'asmatu' baitzuen Hollywood mutuan eta muntaia-mahaira igaro zen Cecil B. DeMillerekin lankidetzan aritzeko *The Greatest Show on Earth* (1952) lanean. Eta ezin ahaztu Susan E. Morse, Woody Allenek zuzendutako filmik hoberenetakoa muntatzailea, hasi *Manhattan*-ekin (1979) eta *Celebrity* (1998) arte, baita *Hannah and Her Sisters* (1986) ere, zeinarekin Akademiaren sari baterako izendatu zuten.

Agnès Guillemot, *Band à part* (1964) filmaren muntatzailea; Jean-Luc Godardek zuzendu zuen filma eta Anna Karina izan zen protagonista; honen bidez Zinematekak bere ibilbide zabala gogoratu nahi du. Ibilbide honetan Marcel Moreauren profesionaltasuna ere nabarmendu da, Jacques Tatik zuzendutako lehenengo filmen muntatzailea izan zen eta komedia haiek eszenaratze onean adina oinarrizten dira muntaia zehatzean, esaterako, *Jour de fête* (1949).

Peter Przygoddak *Der Himmel über Berlin* (1987) filmerako egindako muntaia ere ekarri dugu, film hori Wim Wendersek zuzendu zuen. Anthony Gibbs eragin handiko muntatzaile ingelesa izan zen eta Tony Richardsonek zuzendutako *Mademoiselle* (1966) programatu dugu; Marguerite Durasena da gidioa.

*The shadow of a doubt* (1943) lanean Alfred Hitchcockek irudietan sintetizatu zituen argumentu aztoragarriak Milton Carruth maisuari esker, zeinaren ibilbidean Unibertsaleko 1930eko hamarkadako beldurrezko film gogoangarriak dauden.

*Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)* da, oraingoz, zazpigarren artearen ekoizpenean zehar egindako ibilbidearen azken urratsa. Hausnarketa aldiaren ondoren, ziklo honi berriro helduko diogu pantaila handian 'maisulanez' gozatzen jarrai dezagun.

////////////////////////////////////

## ZINEMAREN HISTORIAKO 50 HARRIBITXI (II. ZATIA) PROGRAMA

////////////////////////////////////

### Der himmel über Berlin (1987)

Zerua Berlin gainean

Urriak 14, asteazkena / 17:30

Urriak 15, osteguna / 19:30



Bi aingeruk, Damielek eta Cassielek, Berlin gainetik egiten dute hegan. 'Irainaren harresiak' banandutako hiria da oraindik. Haurrek eta tatxarrik gabeko bihotzeko gizonak bakarrik ikus ditzakete aingeruak. Haiek, goitik, gertaerak ikusi eta gizakiekiko erruki handia sentitu, hori baizik ezin dute egin. Haietako bat, baina, trapezista gazte batez maiteminduko da, hilkorren sentimenduen berri izan nahi baitu.

128' / Alemania

Z: Wim Wenders

A: Bruno Ganz, Peter Falk, Solveig Dommartin, Otto Sander, Curt Bois, Hans Martin Stier

### Mademoiselle (1966)

Urriak 21, asteazkena / 17:30

Urriak 22, osteguna / 19:30



Manou italiar erakargarri eta alaia bidegabeki salatu dute, Frantziako herri txiki bateko bakea hondatu duten uholdeak eta bestelako gorabeherak eragitea leporatuta. Hala ere, emakume baten errua da dena. 'Mademoiselle' esaten diote, herriko irakaslea delako, eta obsesiboki maite du Manou, hark bera maite ez badu ere.

105' / Frantzia

Z: Tony Richardson

A: Jeanne Moreau, Ettore Manni, Keith Skinner, Umberto Orsini, Georges Aubert, Jane Beretta

### The greatest show on earth (1952)

Munduko ikuskizunik handiena

Urriak 28, asteazkena / 17:30

Urriak 29, osteguna / 19:00



Brad Bramen treguan dabilen enpresaburuak Sebastian trapezista famatua kontratatu du Hollyrekin -ikusleen trapezista gogokoenetako batekin- parekatzeko eta horrela denboraldi ona izateko. Bien arteko borroka

baten ondoren, Braden eta Sebastianen maitasunaren artean harrapatuta dago Holly. Horiek horrela, Bradek egoera zail hori zuzentzea erabakitzen du.

153' / Estatu Batuak

Z: Cecil B. DeMille

A: James Stewart, Charlton Heston, Betty Hutton, Cornel Wilde, Dorothy Lamour, Gloria Grahame

### Manhattan (1979)

Azaroak 4, asteazkena / 17:30

Azaroak 5, osteguna / 19:30



Isaac Davis New Yorkeko idazleak maite ez duen 17 urteko neska-laguna du, eta emazte lesbiana ohi bat ere badu, bere eskuez ito nahiko lukeena, haren liburu berrian ezkontideen intimitateak azaltzeagatik. Egoera areago zailduko da Mary ezagutzen duenean, bere lagunik onenaren maitale ederra, erabat maiteminduko baita hartaz.

96' / Estatu Batuak

Z: Woody Allen

A: Woody Allen, Diane Keaton, Mariel Hemingway, Michael Murphy, Meryl Streep, Anne Byrne, Karen Ludwig

## Stagecoach (1939)

Diligentzia

**Azaroak 25, asteazkena / 17:30**

**Azaroak 26, osteguna / 19:30**



Ringo Kid-ek eta bere adiskide xelebreek bidaia luze, gogor eta arriskutsu bati ekin diote. Hala, ezaugarri bereziak dituzten hainbat pertsonaiaren artean, hauek ezagutuko ditugu: Dallas, herriatik kanporatutako prostituta; Boone, mediku alkoholizatua; Gatewood, bankari harroa; eta haurdun dagoen Mallory andrea. Bidaiairenen arteko harremanak ez dira adiskidantzazkoak, eta Tontotik Lordsburgerako bidaia gehiago korapilatuko da lautada erdian apatxeek konboiari eraso egiten diotenean.

99' / Estatu Batuak

Z: John Ford

A: John Wayne, Claire Trevor, Thomas Mitchell, Andy Devine, George Bancroft, Donald Meek, Louise Platt

## Bande á part (1964)

Aparteko banda

**Abenduak 2, asteazkena / 17:30**

**Abenduak 3, osteguna / 19:30**



Diru-kopuru handia erraz eskuratzeko aukera berri baten bila dabilela, Arthur-ek

Franz laguna konbentzitu du Odileren –ingeleseko eskolako kide baten– izebaren etxean lapurreta egiteko. Arthur-ek liluratuta, Odilek plana eskuratzen du. Hala ere, Arthur-ek, bizitza legez kanpo bilatzera beharturik, lapurreta planifikatzen du; taldeko beste bi kideek, berriz, joko bat balitz bezala hartzen dute sarekada, eta horrek, azkenean, loturak estutzera eramaten ditu.

95' / Frantzia

Z: Jean-Luc Godard

A: Anna Karina, Claude Brasseur, Sami Frey, Louisa Colpeyn, Chantal Darget, Ernest Menzer

## Shadow of a doubt (1943)

Zalantza baten itzala

**Abenduak 9, asteazkena / 17:30**

**Abenduak 10, osteguna / 19:30**



Halako batean, Charlie osaba Santa Rosara iristen da, hiri horretan bizi baita bere familia, bera hainbeste miresten duena. Seduktore kriminal bat da Charlie, Filadelfiatik Kaliforniara doana, justizia atze-atzean duela. Charlieren ilobak luze gabe susmatuko du bere osaba dela emakume alargun dirudunen hiltzaile misterioitsua.

108' / Estatu Batuak

Z: Alfred Hitchcock

Reville, Sally Benson  
A: Teresa Wright, Joseph Cotten, Macdonald Carey, Henry Travers, Patricia Collinge, Hume Cronyn, Wallace Ford

## Jour de fete (1949)

Jaieguna

**Abenduak 16, asteazkena / 17:00**

**Abenduak 17, osteguna / 19:30**



Saint Sévère herria jai handi bat ospatzear dago. Kaleak giralandaz eta banderaz bete dira. Feriariarik egurrezko zalditxoak, tonbolak eta pagotxak ekarri dituzte gurdietan. Zinema ibiltariaren proiektio batean, herriko postaria den François-ek, feriariarik laguntzeko irrikaz, ideiak aurkitu ditu gutunak emateko sistema berri bat ezartzeko, baina hondamendiak besterik ez dira gertatuko.

81' / Frantzia

Z: Jacques Tati

A: Jacques Tati, Santa Relli, Guy Decombe, Paul Frankeur, Maine Vallee, Roger Rafal

## INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsiotan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpiztitulatuak (JBGA).

Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.

+ Info: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.

LABURDURAK

A: Aktoreak | Z: Zuzendaria

Irukiak: IMDb



ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK  
IRA. 28 > URR. 4 (astl. > iga.)

# Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan

////////////////////////////////////  
Irailak 28, astelehena > Urriak  
4, igandea

19:30

Golem Alhóndiga Zinemak

5€ / 4€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

////////////////////////////////////

AKELARRE, ÉTÉ 85, EL AGENTE TOPO, HERSELF, RIZI, LAS  
MIL Y UNA ETA ANE, DONOSTIAKO ZINEMALDIAREN 68.  
EDIZIOAN PARTE HARTUTAKO FILM LUZEAK, AZKUNA  
ZENTROAN PROIEKTATUKO DIRA IRAILAREN 28TIK  
URRIAREN 4RA ARTE.

Zinemaldiaren 68. edizioan parte hartutako eta Estatuan ikusi gabeko filmen sorta bat proiektatuko du Azkuna Zentroak bere zinema- eta ikus-entzunezko programaren barruan.

Urteroko hitzordu hau irailaren 28an hasiko da aurten, astelehenarekin, eta urriaren 4ra arte iraungo du (igandea). Donostiako Zinemaldiaren programazio-parrila handiaren lagin txiki bat izango da, eta Atal Ofizialean, New Directors, Perlak eta Zabaltegi sekzioetan aurkeztutako lan batzuk izango ditu ikusgai.

Gai, jatorri eta sari desberdinak dituzten zazpi film Bilbora etorriko dira Azkuna Zentroko Zinemaldiaren asterako, eta Zentroan orain dagoen zinema-programarekin batera erakutsiko dira. Oraingo programak dimentsio historikoa -Zinematekan- eta ikus-entzunezko ekoizpen garaikidea eta nazioartekoa hartzen ditu kontuan.

////////////////////////////////////

## DONOSTIA ZINEMALDIA PROGRAMA

////////////////////////////////////

### Akelarre

Irailak 28, astelehena / 19:30



Euskal Herria, 1609. Eskualdeko gizonak itsasora joan dira. Anak festa batean parte hartu du basoan herrixkako beste neska batzuekin. Erregeak eskualdea arazteko bidalitako Rostegui epaileak atxilotu egiten ditu eta sorginkeria leporatzen die. Erabakia hartzen du behar den guztia egiteko akelarreari buruz dakitena aitortu dezaten. Izan ere, zeremonia magiko horretan, deabruak zerbitzariei hastapenak irakasten omen die eta eta haiekin bikotekatzen omen da. 2017an Europako eta Latinoamerikako Koprodukzioko VI. Foroko Arte Kino International Prize-ari irabazi zuen proiektua.

#### Sail Ofiziala

90' / Espainia - Frantzia - Argentina

JB Euskara-Gaztelania

Z: Pablo Agüero

G: Pablo Agüero, Katell Guillo

Ar: Javier Aguirre

A: Álex Brendemühl, Amaia Aberasturi, Garazi Urkola, Irati Saez de Urabain, Jone Laspiur

### Été 85 / Summer of 85

Irailak 29, asteartea / 19:30



Alexis 16 urte betetzear dago, eta ia ito da, bere itsasontzia Normandiako itsasaldean irauli ondoren. Zorionez, 18 urteko Davidek modu heroikoan salbatu du. Alexisek bere ametsetako laguna ezagutu berri du. Baina amets horrek uda bat baino gehiago iraungo du? 1985eko uda. Cannes 2020ko Sekzio Ofiziala..

#### Sail Ofiziala

100' / Frantzia

JBGA

Z/G: François Ozon

Ar: Hichame Alaouie

A: Félix Lefebvre, Benjamin Voisin, Philippine Velge

### El agente topo / The mole agent

Irailak 30, asteazkena / 19:30



Detektibe pribatua da Rómulo. Zaharren egoitza bat ikertzeko agindu diote, eta Sergio infiltratzea erabaki du. Sergio 83 urteko gizona da, eta ez du inoiz detektibe gisa lan egin. Maite Alberdi txiletarraren

azken film honetan generoak nahasten dira. Sundance-n lehiatu zen, Koprodukzioko Forotik 2017an igaro ondoren.

#### Perlak Saila

84' / Txile

JB Gaztelania

Z/G: Maite Alberdi

Ar: Pablo Valdés

A: Sergio Chamy, Rómulo Aitken, Marta Olivares, Berta Ureta, Zoila González

### Herself

Urriak 1, osteguna / 19:30



Sandra ama gaztearen istorioa da. Hartaz abusatzen duen senarrarengandik ihes egin ondoren, etxebizitza sozialeko sistema ezgai eta ustel bati aurre egin beharko dio. Lagun eta aliatu batzuen laguntzarekin, bere etxea eraikitzea erabakitzen du, eta, bitartean, bere bizitza berreraiki, eta bere burua aurkituko du. Sundance Jaialdian estreinatu zen eta Human Rights Film Award saria irabazi zuen Dublingo Zinemaldian.

#### Perlak Saila

97' / Irlanda

JBGA

Z: Phyllida Lloyd

G: Malcolm Campbell, Clare Dunne.

Ar: Tom Comerford.

A: Clare Dunne, Harriet Walter, Conleth Hill, Cathy Belton, Ericka Roe, Rebecca O'Mara.



## Rizi / Days

Urriak 2, ostirala / 19:30



Gaixotasunak eta tratamenduak eragindako minaren mende, Kang eskale baten bizitza bizitzen ari da. Atzerriko lurralde batean Non ezagutuko du. Kontsolamendua izango dute elkarrekin, banandu eta bakoitzak bere kabuz bizitzen jarraitu aurretik. Teddy Epaimahaiaren saria Berlingo Zinemaldian.

### Zabaltegi-Tabakalera Saila

127' / Taiwan

JB elkarrizketarik gabe

Z/G: Tsai Ming-Liang

Ar: Chang Jhong-Yuan

A: Lee Kang-Sheng, Anong Hougheuangsy

## Las mil y una

Urriak 3, larunbata / 19:30



Irisek iragan zaila duen neska gazte bat ezagutu du, Renata. Berehala sentituko du harenganako erakarpena. Beldurrak gainditu, eta bere segurtasunik ezei aurre egin beharko die lehen maitasuna

esperimentatzeko. Berlingo Panorama sekzioan aurkeztu zuten eta Film Onenaren saria irabazi zuen Jeonjuko Zinemaldian.

### Horizontes Latinos Saila

120' / Argentina - Alemania

JB Gaztelania

Z/G: Clarisa Navas

Ar: Armin Marchesini Weihmuller

A: Sofia Cabrera, Ana Carolina García

## Ane

Urriak 4, igandea / 19:30



Euskadi. 2009 urtea. Etebizitza batzuk desjabetuko dituztelako bere auzoan istiluko izan ondoren, Lide, abiadura handiko trenaren obretan zaintzaile gisa lan egiten duen ama gaztea, ohartzen da Ane alaba nerabea ez dagoela. David Pérez Sañudoren lehen film luzea.

### New Directors Saila

120' / Espainia

JB Euskara

Z: David Pérez Sañudo

G: Marina Parés Pulido, David Pérez Sañudo

Ar: Víctor Benavides

A: Patricia López Arnáiz, Jone Laspiur, Mikel Losada, Luis Callejo, Nagore Aramburu



## INFORMAZIOA

Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.

Azkuna Zentroa ez da bere kudeaketatik kanpoko edozein arrazoiengatik programazioan izan daitezkeen.

Informazio gehiago: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)  
[sansebastianfestival.com](http://sansebastianfestival.com)



## LABURDURAK

A: Aktoreak | Ar: Argazkia

G: Gidoia | Z: Zuzendaria

JBGA: Jatorrizko bertsoia gaztelaniaz azpititulatua

JB: Jatorriko bertsoia



SSIFF

Donostia Zinemaldia  
Festival de San Sebastián  
International Film Festival

# Irakurketa Errazeko kluba

Urrian hasiko dira Mediatekan Irakurketa Errazeko klubak, hainbat erakunderekin eta talderekin hitzartuak. Topaketa hauei esker, irakurtzeko gaitasun desberdinak dituzten pertsonak liburu bera formatu egokitan irakurri ahal izango dute eta istorioak partekatu. ahal izango dituzte, dinamizatzaile batek gidatuta.

Dinamika hau Irakurketa Fácil Euskadi - Irakurketa Erraza elkartearekin batera sustatu da, irakurketa partekatua bultzatzen du ahots goran, eta hainbat ariketa eta jarduera egiten ditu, istorioarekin eta testuaren ulermenarekin lotuta.

Euskarazko eta gaztelaniazko irakurketa-klubez gain, Mediatekako funts bibliografikoak 60 liburutik gorako bilduma du, LF formatuan. Halaber, Azkuna Zentroak laguntza eman du euskarazko zenbait titulu argitaratzeko, esparru horretako hizkuntza-normalizazioa bultzatzeko.

MEDIATEKAKO 'TEKA'  
BERRIAK IZANGO  
DIRA KLUBEN  
ESPARRUA.



## **Irakurketa Errazeko Kluba gaztelaniaz**

Urriak 1, 8, 15, 22 eta 29

Azaroak 5, 12 eta 19

Ostegunak

11:00 - 12:00

Mediateka. TK103

## **Irakurketa Errazeko Kluba euskaraz**

Urriak 6, 13, 20 eta 27

Azaroak 3, 10 eta 24

Abenduak 1

Astearteak

17:00 - 18:00

Mediateka. TK103



Irakurketa Errazeko Kluba





# Patxi Araujo

Gau Zuria

*Steps of faith* instalazioa

Hiriaren sorreraren urteurrena gogora ekartzeko Bilbok prestatzen duen [Gau Zuria](#) kultura-programaren barruan, aurtien ere Azkuna Zentroa izango da agertokietako bat.


Oraingoan, [Patxi Araujo](#) artista eta ikertzailearen *Steps of faith* pieza aktibatuko da. Argiaren eta soinuaren murgiltze-instalazio honek gonbit egiten digu argi digitaleko ibai baten gainean ibiltzera, etengabe aldatzen ari den lurralde ezezagun bat zeharkatuz.

**PATXI ARAUJO** (Iruñea, 1967) Artista eta ikertzailea. Arte ederren praktikatik abiatuta, bere lana baliabide berrien poetikaren eremuan garatzen da, arlo teknologiko-digitalari aurre egiteko koartada estetiko gisa. Gaur egun, software-entitateetan eta ingurune fisikoetan oinarritzen da bere ikerketa, programazioarekin, bitzita artifizialarekin edo simulazioarekin lotutako gorputzen, pertzepzioen eta metaforen bidez giza eta natura kontzeptuaren inguruan. Hainbat bienal, bideo-arte eta esperimentazio elektronikoko lehiaketetan aintzatetsi eta aukeratu dute bere lana.

Urriak 3, larunbata

Kulturen Ataria

Informazio gehiago:  
bilbao700.eus



Steps of faith



## Alos Quartet. XX Urte

Loraldia

**Lau**

Musikaren munduetan emandako hogeit hamar urteak ospatzeko, Alos Quartet (Xabier Zeberio, Lorena Núñez, Francisco Herrero eta Iván Carmona) Azkuna Zentrora etorriko da ekoizpen berri batekin.

Kontzertu honen oinarria *Lau* izango da, sormenezko jai handi gisa planteatu da, euskal dantza berriko bi unibertso: *Aukeran* eta *Amaia Elizaran*; eta *Aitor Etxebarria*, *Iñigo Egia*, *Natxo de Felipe*, *Anton Latxa*, *Bixente Martínez* eta *Oreka Tx* musikariak daude gonbidatuta.

Urriak 8, osteguna

19:30

Auditorioa

15€ / Lorazainak: 12€

Sarrera: [AzInfo](http://AzInfo.azkunazentroa.eus),  
[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)  
[loraldia.eus](http://loraldia.eus)

Programa osoa kontsulta  
ezazu: [loraldia.eus](http://loraldia.eus)

---

**LORALDIA**  
EUSKAL KULTURA GAIR

## MUSIKA

### Bilboko Udal Bandaren kontzertuak

**Bilboko Musika Bandak** 2020-2021 denboraldia irekiko du, bi kontzertu berezirekin Azkuna Zentroko Kulturen Atarian, zentroaren programazio garaikidearekin harremanetan.

José R. Pascual-Vilaplana zuzendari titular eta artistikoak diseinatutako seigarren denboraldia irailaren 11n hasiko da, eta bigarren kontzertuarekin jarraituko du hil bereko 25ean. Azkuna Zentroko bi irekiera-kontzertuen ondoren, zikloak Euskalduna eta Arriagako ohiko agertokietan izango du jarraipena.

Irailak 11 eta 25  
Ostirala

19:00

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik leku guztiak  
bete arte

Programa osoa kontsulta  
ezazu: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

---

**Bilbao** Musika

## Film Sozialak

Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren 12. edizioa

**Kultura, Communication y Desarrollo 'KCD'**

**Film sozialak** Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren 12. edizioa izango dugu Azkuna Zentroan. Erakusketak leihoa zabaltzen die ohiko pantailetan agertzen ez diren errealitate sozialei, eta dibertsitatea eta konpromiso soziala ikusarazten ditu, beren obrekin gizateriaren kausen bozeramaile bihurtu diren komunikatzaileen eskutik.

Urriak 15 > 22

Golem Alhóndiga Zinemak  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

Kontsulta ezaz programa osoa:  
azkunazentroa.eus  
kcd-ongd.org/invisible



## Zinemakumeak Gara!

25. emakumeek zuzendutako zinema erakusketa

Emakumeek zuzendutako zinema erakusketaren XV. edizioan, jardunaldi bat izango da Azkuna Zentroan. Lehenik eta behin, denbora honetan egindako lanari buruzko mahai-ingurua izango da. Gero, *My Mexican Bretzel* (2019) filma proiektatuko da, eta *Núria Giménez* zuzendaria saioan izango da. Azkenik, solasaldia egingo da, eta zuzendariak parte hartuko du.

### PROGRAMA:

19:00. *Zinemakumeak Gara!* zinema-erakusketaren 25 urteei buruzko dokumentalaren proiektzioa + solasaldia

19:45. Núria Giménezen *My Mexican Bretzel* (2019) film luzearen proiektzioa + filmeko zuzendariarekin solasaldia.

*My Mexican Bretzel* (2019) (73'). Vivian Barretten egunkariaren zatiak eta Léon Barrettek 1940ko eta 1960ko hamarkaden artean filmatutako irudiak bateratzen ditu. Dokumental faltsua da, baina agertzen eta kontaktzen denaren zati bat benetakoa da.

Urriak 14, asteazkena

19:00

Auditorioa

Sarrera dohainik  
gonbidapenarekin (jaso Az  
Infon) leku guztiak bete arte



## BBSC. Biscay Bay Startup Campus

Irailaren 24an eta 25ean, Azkuna Zentroak [Biscay Bay Startup Campus-en \(BBSC\)](#) hirugarren edizioa egingo du. Ekitaldia birtuala izango da aurten, Berrikuntza Irekian jarriko du arreta, eta, besteak beste, Zeleros Hyperloop, Cabify, Blablacar nazioarteko startup-sortzaileek hartuko dute parte, eta Airbus, Iberdrola eta Endeavor enpresek ere bai.

Antolatzaileen helburua da pertsona berritzaileen belaunaldi berria sortzea eta Bizkaia kokatzea startupek eta gazte ekintzaileei laguntza ematen dien lurralde berritzaile gisa. BBSC Biscay Startup Bayko kidea da: Bizkaiko Foru Aldundiak lurraldea munduko nodo konektatuena bihurtzeko duen estrategia.

Irailak 24 eta 25  
Osteguna eta ostirala

Informazio gehiago  
eta izen-ematea:  
[biscaybaystartupcampus.com](http://biscaybaystartupcampus.com)

---

**#BBSC**

ARTE GARAIKIDEA

### Ivan Gómez

*La prospección de Kairós (Kairosen prospekzioa)*

Azaroak 2, astelehena > Urtarrilak 24, igandea

Iván Gómez artistak *La prospección de Kairós (Kairosen prospekzioa)* proiektua aurkezten du Lantegia. Ideia-laborategian. Gailu metodologiko bat da, gailuaren eta 'tartearen' auziaren inguruan lankidetzan ikertzeko.

---

DANTZA

### Iker Gómez

*Un día cisne en el teatro*

Azaroak 26, osteguna

*Un día cisne en el teatro* dantzaren bidez balio sozialak eta bizikidetzak sustatzeko asmatutako proiektua da. Proiektu berritzailea honek teknologia berriak erabiltzen ditu publiko-komunitateekin konektatzeko tresna pedagogiko gisa.

---

DANTZA

### Janet Novás

*Mercedes más eu*

Abenduak 17, osteguna

*Mercedes más eu* Janet Novás artistaren eta Mercedes Peón konpositorearen arteko lankidetzak bat da. Proposamen eszeniko sotila, komunitate sentikorrari buruzkoa.

**SORKUNTZARAKO SUSTAPENA**

Komisario Berriak

## Mario Paniego

### *Espacio público(itari)o*

Azkuna Zentroak **Mario Paniegoren** (Bilbo, 1978) *Espacio publicitario* (*espacio público / espacio publicitario*) aukeratu du, komisariotza sustatzeko eta artearen esparruko profesional berrien sorkuntza eta sendotzea bultzatzeko xedea duen Komisario Berriak programaren barruan.

Mario Paniegoren erakusketa-proiektuak inguruneko publizitatearen presentzian eta hirietako eguneroko bizitzan sortzen duen zaratan jartzen du arreta; artistak dioenez,

«espazio publikoaren eta pertsonalaren parte handi batez gabetzen gaitu».

*Espacio publicitario* (*espacio público / espacio publicitario*) obra izan da deialdira aurkeztutako 18 proposamenen artean aukeratua, eta publizitateak gure bizitzetan eta, batez ere, espazio publikoan duen indarrari buruzko berrazterketa proposatzen du. Artista bisualak adierazi bezala, proiektu hau garatzeko interesa sortu zion «ikusetak azken urteetan Bilbon nola ugaritu den





publizitatea espazio publikoetan eta nola, aldiz, munduko beste hiri batzuetan murriztuz joan den, herri-ekimenei eta udal arautegiei esker».

Artistak proposatzen du «gizarteak berrikustea publizitateak gure bizitzetan eta, bereziki, espazio publikoan hartu duen negusitasuna». Hiru ataletan egituratuta dago. Lehen atalean, azterketarako kasu gisa hartu ditu espazio publikoan publizitatearen erabilera murriztu duten munduko zenbait hiri, eta erakutsi ditu ekimen horien nondik norakoak, haien garapena eta ezarpena. Bigarrean, ezagutzera emango du beren proposamenak hedatzeko publizitate euskarriak erabiliz nahiz espazio publikoa gizarte-gogoeta sortzeko baliatuz gai hau

lantzen diharduten mundu osoko hainbat talde eta artistaren jarduera artistikoa, aktibista.

Azken atalean, proiektuak atea zabaltzen dio herritarrek publizitateak ingurunean duen presentzian esku hartzeko. Izan ikastetxeen bidez, zeinari gonbita egiten baitzaie gai hau erabiltzeko publizitateko tresnak berak erabiliz; izan beste publiko-komunitate batzuekiko bitartekaritzaren bidez, haiei aukera emanez askotariko dinamika eta talleren bidez gaiari buruzko beren kezak eta ikuspegiak adierazteko.



 [mariopaniego.com](http://mariopaniego.com)

////////////////////////////////////  
**MARIO PANIEGO** (Bilbo, 1978).  
Artista kontzeptuala eta bisuala da. Haren ustez, artea bizitzeko aitzakia bat da, eta mundua eta bere burua ezagutzeko modu bat. Lantzen duen proiektu berri bakoitzean esperimintatzea eta ikastea maite du, eta baliabide desberdinak erabiltzen ditu, proiektuaren izaera aintzat hartuta. Artistak arreta bereziaz aukeratzen ditu bere sorkuntzetan erabiltzeko osagai materialak eta kontzeptualak, eta arreta handia ematen dio, halaber, bere lan artistikoa bizitzan integratzeari, artearen esparrutik haratago joz. Arte Ederretako lizentzia eskuratu zuten University of the West

of England Unibertsitatean, eta doktoregoko ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, non eskuratu baitzuen Ikasketa Aurreratuen Diploma (Gaur egungo Artearen Pentsamenduari eta Praxiari buruzko Ikasketa Aurreratuen Diploma). Aurrerago, Diseinuaren Kudeaketako Masterra (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Kultura Kudeaketako Masterra (Alcalá de Henaresko Unibertsitatea) egin zituen. Hainbat herrialdeetan aurkeztu ditu lanak. Aldi berean, eskolak eman ditu unibertsitatean, eta beste lanbide batzuetan aritu da.

////////////////////////////////////

**Komisario Berriak** Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Azkuna Zentroaren (Bilbo), Artiumen (Gasteiz) eta Tabakaleraren (Donostia) arteko lankidetzaproiektua da, eta komisariotzaren praktika euskal testuinguruan garatzea eta profesional berriak sortzea du helburu.

# Lanean. Prozesuei laguntzeko programa

Lanean. Prozesu artistikoak laguntzeko programaren bidez Zentroaren programazioarekin eta jarduera-ildoekin loturiko proiektuak garatzeko behar dituzten baldintza material eta espazialak eskaintzen zaie sortzaileei.

Lanean. Prozesu artistikoak laguntzeko programa *Macarena Recuerda Shepherd* artistarekin abian jarriko da; hain zuzen ere, programa honen baitan landuko du *The watching machine* piezaren sorkuntza-prozesua.

Begiratzeko makina zeritzen ispiluen eta obturadoreen bitartez ilusioak sortzen zituzten XIX. mendeko objektuei. *The watching machine* piezan, kutxa eszenikoa bera da makina; hor, argiarekin, itzalekin eta distirekin jolas egingo dugu, esperimentatzeko zer den ilusioa, zer errepresentazioa eta zer antzerki konbentzioa.

---

**MACARENA RECUERDA SHEPHERD** Lidia Zoilo artistaren izengoitia da. Sortzailea, dantzaria eta artista bisuala da, eta hainbat pieza sortu ditu, besteak beste, 2010eko *That's the story of my life* zuzeneko filma; 2012ko *Greenwich Art Show*, zuzeneko dokumentala; 2012ko *Greenwich Art Show- The Installation* (Atrio Alhóndiga Bilbao beka); 2013ko *Whose are those eyes?* sit specif eta eskuhartzea. Gaur egun, bira egiten ari da ¡AY! ¡YA! piezarekin, eta 60 emanalditik gora ditu hitzartuta.

---

**Lanean. Prozesu artistikoak laguntzeko programaren** helburua da obra artistikoen ekoizpena sustatzea, publiko-komunitateei hurbilduz, dela egindako obraren bidez, dela sorkuntza-prozesuen bidez.

Kolektibo Egoiliarra


## Tractora Koop. E., Azkuna Zentroko kolektibo egoiliar berria

Usue Arrieta, Vicente Vázquez, Ainara Elgoibar, Marc Vives eta Nader Koochak artistek eratzten duten **Tractora** kooperatiba izango da Azkuna Zentroko **Kolektibo Egoiliar** berria. Bi urtez, kolektiboak **Kinu** proiektua garatuko du Zentroan.

**Kinu** denboraren arteko autoprestakuntza aurreratuko taldea da, hizkuntza plastikoan bat egiten duten tekniken, materialtasunen eta formen elkargune gisa hartuta.

Usue Arrieta eta Ainara Elgoibar taldeko bi kideek sustatutako proiektuak plataforma egokia izan nahi du artisten ikus-entzunezko produkzioak programatzeko, ikusteko eta eztabaidatzeko.

Tractora kooperatibak esperientzia sortzaileak partekatuzko tresna gisa planteatzen du **Kinu**, esperientzia horien bidez, espazio emankorrak irekitzeko tokiko eragileen ekoizpenerako



---

**TRACTORA KOOP. E.** artisten kooperatiba bat da, eta 2013an sortu zen, kideen arteko lankidetzeta-harremanak formalizatzeko. Denbora igaro ahala hazten joan da, bere bazkideen proiektu artistikoak eta kooperatibako kideekin interesak, afektuak eta kezak partekatzen dituzten hirugarren pertsonen proiektuak sortzeko, ekoizteko eta banatzeko euskarri gisa.

2016. urtetik aurrera, proiektu kolektiboen ekoizpena zabaldu da jarduerara; proiektu horietan kideek parte hartzen dute, artean egiten den lanaren, produkzio-bideen, funtzio sozialaren eta artista garaikidearen praxiaren inguruan taldeak egin duen barne-gogoetako beste urrats bat bezala

---

eta prestakuntzarako, eta, beraz, komunitaterako, parte-hartzaileen beharrianetatik eta nahietatik abiatuta. 'Kinu' bizkaieraz keinua izendatzeko erabiltzen den hitza ere bada, eta esan gabe zerbait adierazten duen mugimendua da keinua, hala nola museko bikoteari jokoa aurrera egiteko egiten zaion keinua.

**Kinuren** esparruan, hiru hilean behin artista bat gonbidatuko dute, eta haren lanaren inguruan hiru jarduera-mota egingo dira. Hasteko, bere obraren aurkezpen publikoa eta eztabaida txiki bat. Ondoren, artistak zuzendutako saio bat, egun bateko edo biko lan-talde egonkor samar batekin batera (**Lantaldea**). Talde horren dinamika gonbidatuaren neurria diseinatu da. Azkenik, lantaldea osatzen duen pertsona batek testu bat egingo du (**Distirak**), **Lantalde** bakoitzaren esperientzia jasotzeko.

**Kinu** saio pilotu batekin hasi zen (**Kinu#1**), Elena Aitzkoa artistaren eskutik. 2020ko irailetik aurrera eta hurrengo bi urteetan, Azkuna Zentroarekin koprodukzioan garatuko da Kinu.

## **Kinu#2. Maddi Barber**

Kinu irailaren 17an abiatuko dan Azkuna Zentroan, **Kinu#2** saioarekin, eta Maddi Barber zinemagilea (Lakabe, 1988) izango da gonbidatua. Ibilbide profesional labur baina sendoa du, bere azken lana Punto de Vista 2020 Jaialdian aurkeztu baitu: **Gorria** (2019an X Films Sariaren irabazlea). Lana Lakaben filmatu zen 16 mm-an, eta bi lanbide paraleloan ikasteko ariketa da: zeluloideko filmaketa eta artzaintza. Indarkeriaren eta maitasunaren, bizitzaren eta heriotzaren arteko orekan dagoen ariketa ere bada, eta artzain-bikote bat eta haren familia ditu protagonistak.

**Kinu#2** saio publiko honetan, filmaren azken muntaketa eta baztertu diren hartuneak ikusi ahal izango dira, eta Maddi Barberrekin batera, irudietako protagonista den bikotea egongo da. Hortaz, ikuspegi zabaletik hurbildu ahal izango gara.

**Lantaldea#2** lan-taldearen saioa tailer praktikoa gisa antolatzen da. Tailerrean, film bat adostu eta egingo da taldean; 16





Maddi Barber. *Gorria* (2020)

mm-an filmatutako pelikula bat, kameran muntatua, errebelatua eta egun berean proiektatua.

Eskuek leku pribilegiatua hartzen dute *Gorria* lanean —aurpegiak baino askoz

gehiago—. Horregatik, [Ander Pérez](#) artistak egingo du *Distirak#2*, bere arestiko praktikan eskuez eta beren keinuen erreflexuaz arduratu baita ikus-entzunezko bitartekoen bidez.



---

**MADDI BARBER** Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da, eta Antropologia Bisualeko masterra egina du Manchester-eko Unibertsitatean. Bere azken lanek *-592 metroz goiti* eta *Urpean Lurra*- Itoizko urtegiak kaltetutako lurraldea dute ardatz, eta jaialdi hauetan izan dira: *Visions du Réel*, *Zinemaldia (Zabaltegi)*, *Curtocircuito*, *Alcances*, *Porto Post Doc*, *L'Alternativa* eta *Las Palmaseko Jaialdia*. 2019an, *Punto de Vista* jaialdiko *X-FILMS* proiektua irabazi zuen, eta horri esker egin zuen *Gorria*.

---

**Kolektibo Egoiliarak** programaren helburua da sorkuntza artistikoari sostengua ematea, iraupen luzeko laguntza emanez hizkuntza artistikoak eta kultura garaikidea askotariko moduetan eta ikuspegietatik lantzen dituzten hurbileko taldeei, kultura programazioa artikulatzeko elkarrekiko konplizitatea sendotzeko.

# ARTISTA ETA IKERTZAILE AZ-KIDEAK

## Laida Lertxundi. *Escuela efímera*

Laida Lertxundi Azkuna Zentroko **Artista Az-Kidea** izango da 2021ean eta 2022an, eta *Escuela efímera* lana garatuko du. Proiektuak zortzi tailer ditu, eta esperimentu pedagogiko bat sortu nahi du instituzio akademikoan mugetatik kanpo.

Inudia: CCCB



---

**LAIDA LERTXUNDI** Gure Artea 2020 Saria irabazi zuen. Arte Ederren Masterra egin zuen Kaliforniako Arteen Institutuan, eta BFA programa Bard College-n. Bakarkako lana erakutsi du nazioarteko museo, jaialdi eta galerietan. Arte Ederretako eta Giza Zientzietako irakaslea da Pasadenako Art Center College of Design-en.

---

 [laidalertxundi.com](http://laidalertxundi.com)

## Isabel de Naverán

Isabel de Naverán izango da 2021az geroztik Azkuna Zentroari lotutako **Ikertzaile Az-Kide** berria. UPV/EHUko artean doktorea eta dantzako ikertzailea da. Gaur egungo dantza-prozesuak eta koreografia garaikidea aztertzen ditu, kontzeptuak ondorioztatzeko, galderak proposatzeko eta arte edo diskurtso bidezko ekoizpen-moduak aktibatuzko.



---

**ISABEL DE NAVERÁN** (Bilbo, 1976) Madrilgo Reina Sofía Museoko dantza-aholkularia da gaur egun. 2010ean Bulegoa z/b sortu zuen Bilbon, Leire Vergara, Miren Jaio eta Beatriz Caviarekin. ARTEAko kidea da (Madril), eta Praktika Eszeniko eta Kultura Bisualeko Masterreko (UCLM) eta Arteko Ikerketa eta Sorkuntzako Masterreko (UPV/EHU) irakaslea ere bai. 2016 eta 2018 bitartean, dantzako gorputz-transmisioari eskainitako 'Elipsiak' zikloko komisarioa izan zen Azkuna Zentroan.

---

## Oscar Gómez Mata. *Makers*

Oscar Gómez Matak **Artista Az-Kide** gisa landu du, Juan Loriente antzezlearekin batera, *Makers* bere ekoizpen berriaren sorkuntza-prozesua. Argiari, denborari eta maitasunari buruzko obra da, eta 2021ean estreinatuko da Azkuna Zentroan. Gainera, Oscar Gómez Matak *Deriben katalogoa* aktibatu du, **Espe López** artistarekin batera, eguneroko hiri-paisaien behaketa eta esplorazioa lantzeko. Deribak probatzeko, Az Infon eskatu besterik ez da egin behar.



---

**OSCAR GÓMEZ MATA** (Donostia, 1963) Suitzian bizi da eta bertan lan egiten du, Genevan. Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Espainian hasi zen antzerki-jardueretan, 1987an Legaleón-T konpainiaren sortu baitzuen beste kide batzuekin batera, eta ikuskizunak egin baitzituen haiekin 1996ra arte. 1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia eta zenbait ikuskizunetako testuak egin ditu bertan. Suitzako antzerkiko sari nazionala eskuratu zuen 2018an.

---

 [alakran.ch](http://alakran.ch)

## Sra. Polaroiska. *Emakume jakintsuen kontseilua*

Az-Kideak programaren bidez gauzatzen ari da **Sra. Polaroiska** (Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe) adineko emakumeen erreferenteen sorrerari eta ahalduntzeari buruzko bere sorkuntza-prozesua. Gaur egun, *Emakume jakintsuen kontseilua* proiektua garatzen ari dira; belaunaldien arteko topaketa bat, hainbat arlo sozial eta profesioaletan erreferente diren adineko emakumeekin.



Alaitz Arenzanak eta Maria Ibarretxek eratzen dute **SRA. POLAROISKA** kolektiboa. Beren obrak zinema esperimentalak, ekintzako artea, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Arteak saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jardueraren onespenez gisa, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak.

[cargocollective.com/srapolaroiska](https://cargocollective.com/srapolaroiska) - [sra polaroiska](https://www.instagram.com/srapolaroiska)

## Aimar Arriola

**Aimar Arriola** komisario eta ikertzailea bi urterako **Azkuna Zentroari loturiko Ikertzailea** da, eta queer/kuir perspektiben eta artearekiko erlazioa landu du, Zentroaren programazioa ardatz harturik. Ikerketa horrek lotura du bere lan berrienaekin: gaiari eta artxiboari loturiko gaiak, kultura bisualaren esparruan kokatuak, arteari eta plastikari buruzko auzi espezifikoagoak.



Irudia: Helena Goñi (2019)

**AIMAR ARRIOLA** (Markina-Xemein, 1976) komisarioa, editorea eta ikertzailea da. Doktorea da Londresko Goldsmiths Unibertsitateko Kultura Bisualen Saileretik. UOC Unibertsitat Oberta de Catalunya-ko Arteetako Graduak irakasle laguntzailea da, eta *The Against Nature Journal* argitaletxeko editore-burua ere bada (Council, Paris), oraindik sexu- eta genero-identitateak jazarzen dituzten legetan dagoen 'naturaren kontrakoa' kontzeptua abiapuntu duena.

[arriolaaimar](https://www.instagram.com/arriolaaimar) - [aimar.arriola](https://www.facebook.com/aimar.arriola)

**Az-Kideak** programak sorkuntza eta ikerkuntza bultzatzen ditu, eta laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza garaikideei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei. Gonbidapen bidez, hainbat artista eta ikertzaileekin aritzen gara, haien prozesuan laguntzen eta partekatzen, haien proiektzioa sustatzen eta beste sare artistiko batzuekin lotzen.

# Deialdiak eta egonaldiak 2020-2021

2020an era askotako ekimenak daude, ikerketa, sorkuntza eta ekoizpena sustatzeko, zuzeneko eta erakusketako arteen inguruan, artelaren ekoizpena bultzatzeko eta herritarrengana hurbiltzeko, hala egindako obra nola sorkuntzako prozesuak erakutsiz.

## Dantza Garaikideko Egonaldia

### 2021eko apirilaren 4ra arte

Azkuna Zentroak zabalik du [Dantza Garaikideko Egonaldiaren](#) deialdia, Rotterdameko (Herbehereak) Dansateliers sorkuntza- eta erakusketa-zentroarekin lankidetzan egina.

Egoitza hau dantzako profesionalentzat da eta bi etapatan garatzen da.

Lehena Azkuna Zentroan izango da, eta pieza koreografiko bat ikertzeko eta sortzeko prozesua jorratuko du.

Bigarrena Rotterdamen izango da, eta egoiliarak Dansateliers-eko taldearen aholkularitza eta mentoring artistikoa izango du eskura lana garatzeko. Aldi berean, Dansateliers Rotterdam-ek Holandako testuinguruari lotuta dagoen koreografo bat hautatuko du, antzeko ibilbidea egin dezan, deialdi honetan hautatutako egoiliarrekin harremanean jarrita.

## Praktika Artistikoetako Egonaldia

### 2021eko apirilaren 4ra arte

Azkuna Zentroaren [Praktika Artistikoen Egonaldiak](#) Kubako eta Euskadiko artisten arteko trukea sustatzen du, bi espazioetan ikerketa-aldi bat eginez, testuinguru artistiko desberdinetan eta bertakoetan ikerkuntza eta lana bultzatzeko asmoz.

Deialdia apirilaren 4ra arte egongo da zabalik, Euskal Herriari lotutako lana eta ibilbidea duten artistei zuzenduta dago eta Carlos Garaicoa estudioak Habanan egiten duen [Artista x Artista](#) programarekin lankidetzan egiten da.

Bilbon aukeratutako pertsonak Kuban egingo du egonaldiaren lehen zatia, eta Azkuna Zentroan bigarrena. Aldi berean, Carlos Garaicoa estudioak eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok Kubako artista bat hautatuko dute, eta horrek antzeko ibilbide bat egingo du, Bilboko artista egoiliarrekin harremanetan jarrita, Zentroko egonaldian.



## **BIdeOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira**

Ekainak 15 > Irailak 30, 2020

Bigarren urtez jarraian, Azkuna Zentroak ekainean irekiko du atea, [BIdeOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira](#) programan parte hartzeko, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko zinema-eta ikus-entzunezko programazioaren barruan, 2021eko otsailean eta martxoan. Deialdia berariaz zuzenduta dago bideo-adierazpenaren inguruko lanak egiteko ikus-entzunezkoak erabiltzen dituzten artistei eta bideo-sortzaileei.

[BIdeOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira](#) programak bertan eta nazioartean sortutako proiektuak balioesten ditu, eta, besteak beste, sorkuntza bereziak hartzen ditu barnan, ikus-entzunezko lexiko garaikidea erregistratzeko eta irudikatzeke beste modu batzuk dituztenak, eta esperientzia pertsonalekin, biografiekin eta bizitzako istorioekin lotutako gaiak lantzen dituztenak.

[BIdeOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira](#) programak ikus-entzunezko sorkuntza artistikoa eta kulturala ikusarazi nahi du sorkuntzarako, gogoetarako eta gizartearen eraldatzeko tresna gisa, hizkuntza berrien erabilera sustatu nahi du mugimenduan dagoen irudiaren bidez, eta Azkuna Zentroa sendotu nahi du, ikus-entzunezkoaren kate sortzailean parte hartzen duten eragileen arteko eragin-trukerako topagune gisa.

---

## **Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa berezia**

[Babestu](#) ekimenaren barruan ekaina eta uztaila artean irekitako ezohiko deialdian 103 proiektu artistiko aurkeztu dira. Covid-19aren krisiaren ondoriozko eraginak jasan dituzten prozesuak eta ikerketak garatzeko laguntza ematea da sorkuntza sustatzeko programa honen xedea.

Balorazio Batzorde batek, Azkuna Zentroko taldeko pertsonak eta sektore artistikoan ibilbide profesional nabarmena duten kanpoko pertsonak osatuak, proiektuak aztertu, eta zehaztuko ditu Lantegia. Ideien Laborategian garatuko diren hamar proiektu artistikoak. Lantegia proiektu artistikoak ekoizteaz eta bistaratzeaz arduratzen baita, parte-hartzea, sorkuntza, berrikuntza, ezagutza, irisgarritasuna eta aniztasuna sustatuz.

[Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa berezia](#), sorkuntza eta kultura garaikidearen laguntza eta hedapena sustatzen saiatzen da, esperientziak, ideiak eta ikuspegiak trukatzeko sustatuz, eta hurbileko sorkuntza-sarea, diziplina eta zeharkako dimentsioetan, bultzatuz. Era berean, hausnarketa artistiko garaikidera hurbiltzen laguntzen die herritarrei, kultura eraldatzeko tresna gisa jarritz.

---

# HEZKUNTZA PROGRAMA

## HEZKUNTZA PROGRAMA



### HELDUAK

- 60 Pernan Goñi. *Marrazten duzu nahi duzuna*. Tailerra
- 62 Fernando Carvalho. Ableton Live tailerra

### PUBLIKO GUZTIAK

- 61 Sra. Polaroiska. Laborategia / Tailerra



## Pernan Goñi

*Dibujas lo que quieres (Marrazten duzu nahi duzuna)*

Tailerra

Pernan Goñi artistak *Dibujas lo que quieres* tailerra emango du urriaren 13 eta 14ean (asteartea eta asteazkena), *Fatxada Proiektua*. Diseinua, ilustrazioa eta komikia proiektuaren barruan. Bertan, marrazketa landuko du, eta erretratutako pertsoneri buruz hitz egingo du.

Tailerra bereziki zuzenduta dago profesionala izan ez arren marrazketa eta ilustrazioan interes handia duen publiko helduari. Tailerrean marraztu egingo da, kalitateko irizpideak kontuan hartu gabe; zirriboratu, zirrimarratu, entseatu... askatasunez. «Marrazkian oinarrituz sormenerako aukerak ireki. Edo, bestela, denbora marrazten igaro lagunartean», azaldu du artistak.

Erretratu izango da abiapuntua, baina ez da proposamen itxia izango. Pernan Goñik kalitatezko artisten eta marrazkilarien dokumentazioa eta adibideak emango ditu eredu gisa, esploratu beharreko aukerak eta arloak ikusteko.

---

**'PERNAN' GOÑI** (Oñati, Gipuzkoa, 1968), Bartzelona eta Euskadiren artean bizi da eta lan egiten du. Marrazketa eta ilustrazioa lantzen ditu eta ikus-entzunezko animazio laburrak ere egiten ditu. Haren lan gehienak beste kultura-, gizarte- eta politika-erakunde batzuekin egindako kolaborazioak dira, besteak beste, erakunde feministekin edo hezkuntzakoekin egindakoak. Komikien fanzinetan parte hartu du, eta zuzendaritzako laguntzaile gisa aritu da T-Festa, Art T-Shirt Festival-en (2012). Gaur egun freelance gisa lan egiten du, Graphic Recording-en zerbitzuak eskainiz (zuzeneko marrazkia hitzaldietan, kontakizun grafikoak) eta animazio pedagogikoan ilustratzaile eta ekoizle gisa.

---

HELDUENTZAT  
ZUZENDUTA.

////////////////////////////////////

Urriak 13 eta 14  
Asteartea eta asteazkena  
17:30  
Mediateka. TK204  
15€ / 12€ Az Txartelarekin

---

Pernan Goñik Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko fatxada nagusian esku hartuko du *Emakume apartak* proiektuarekin, urriaren letik abenduaren 15era arte. Informazio gehiago xx. orrialdean.

////////////////////////////////////

## Sra. Polaroiska

Laborategia / Tailerra

Artista Az-Kidea den **Sra. Polaroiska** kolektiboak (Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe) laborategi bat egingo du, belaunaldi ezberdinetako pertsonekin maitasunaren kontzeptuaz eta hari buruz dugun heziketaz hausnartzeko.

Genero musikala erreferentziatzen hartuta, dantza, instalazioa, ahotsa, gorputza eta mugimendua zeharka lotzen dituzten narratiba ezberdinak ikertzen dira. Esperientzia multzo bat garatzea da kontua, gorputz batzuek besteekin, haien topaketekin eta desadostasunekin duten harremana sorrarazteko.

---

Alaitz Arenzanak eta Maria Ibarretxek eratzten dute **SRA. POLAROISKA** kolektibo artistikoa. Artista Az-Kideak dira, eta 2017an Gure Artea saria irabazi zuten. Beren obrak zinema esperimentalak, ekintzako arteak, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. Bere lana beste espazio eta lengoaiak batzuen bilaketan oinarritzen da, non gorputza eta bere espazioarekin duen harremana den beti protagonista nagusia. Bere lanak, nahita anbiguoak, gorputzari lotutako roletan jolasten dute, behatzen duenaren begirada ezegonkortzen eta ikusten ari den horretan kokatzera behartuz.

---

PUBLIKO  
GUZTIENTZAT  
ZUZENDUTA.

Urriak 16, ostirala

11:00 - 13:00

Iraupena: 120'

8€ / 5€ Az Txartelarekin

10 urtetik gorako danetarikoko publikoari zuzenduta



Sra. Polaroiska. No hay edad para el ritmo

## Fernando Carvalho

### Ableton Live tailerra

Hotsetan. Azkuna Zentroko Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa

Fernando Carvalho (Lisboa, 1976), gaur egun Bilbon finkatutako konpositore eta inprobisatzaile portugaldarrak Ableton Live tailerra emango du Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren Hotsetan, musika esperimentaleko programaren barruan.

Lantegi honetan, artistak soinu-konposizio eta -diseinuko hainbat teknika eta metodo erakutsiko ditu, musika esperimentaleko lanak egiteko erabilitakoak. Bere lan egiteko modu bereziaren azalpena oinarritzat hartuta, gogoeta egingo du erabaki teknikoiei eta artistikoei buruz, eta parte-hartzaileei eskatuko die beren auziekin eta bitxikeriekin zuzentzeko. Tailerrak hiru eguneko iraupena izango du, eta, amaitzeko, laborategiaren azken egunean, kontzertuaren prestakuntza teknikoa eta kontzeptuala egingo da.

Tailerrean Ableton Live softwarea erabiliko da oinarritzko tresna gisa, hainbat tresna elektronikoa eta akustikorekin batera, soinu-piezak ekoizteko aukera tekniko guztiak probatzeko.

HELDUENTZAT  
ZUZENDUTA.

////////////////////////////////////

**Urriak 5 > 7**  
**Astelehena > Asteazkena**

**Astelehena eta asteartea:**  
17:00 - 20:00

**Astazkena:**  
16:00 - 18:00

**25€ / 20€ Az Txartelarekin**

Musika esperimentalean eta elektronikoa interesatzen duten helduentzat

**Informazio gehiago:**  
[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

////////////////////////////////////

**Kontzertua:**


**Urriak 7, asteazkena**

19:00

Lantegia 1

**Informazio gehiago 31.**  
**orrialdean**

////////////////////////////////////





# Azkuna Zentroa argitalpenak

Azkuna Zentroaren argitalpenen corpusak arte-praktika garaikidea biltzen du, ezagutzeko eta zabaltzeko. Zentroko programazio-lerroen inguruko erakusketen, saiakeren eta liburuen katalogoek osatzen dute.



Izenburua:  
Akromatikoa. Partida Hilezkorra  
Laster salgai  
Hizkuntzak:  
Euskara, gaztelania, ingelesa

## Mabi Revuelta. Akromatikoa. Partida Hilezkorra

Mabi Revuelta (Bilbo, 1967) artistaren *Akromatikoa. Partida Hilezkorra* erakusketaren katalogoa. Susana Blasek komisariatutako (Madril, 1969), eta Azkuna Zentroak (2020ko urriaren 14tik 2021eko urtarrilaren 24ra) eta Madrileko Tabacalera Promoción del Arte espazioak (2021eko otsaila) elkarrekineko itzaitako erakusketa.

Artistaren ibilbidea berrikusten eta azken lana aurkezten du. Xakea hari eroaletzat hartuta, erakusketak bi zati bereizitan banatzen da: *Akromatikoa* (proiektu berria) eta *Denbora-lerroa* (hiru hamarkadako lanaren atzera begirako sintetikoa). Aurrez berrikusitako eskultura-pieza bat dago (*Natura hila perla beltzekin*, 2012-2020). Inoiz argitaratu gabeko *Akromatikoa* proiektua historiako xake-partidarik artistikoenetako batean oinarrituta dago: 1851n Adolf Anderssen eta Lionel Kieseritzkyren artean jokaturako Hilezkorra izenekoan.

## Aurrerapena:

---



## Alondegia buruzko ikerketa-liburua

Bilboko Udal Alondegia, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren egoitza, Ricardo de Bastida arkitekto bilbotarrak proiektatu eta eraiki zuen, eta 1909an inauguratu zen. Mikel Bilbao Salsidua eta Arantxa Pereda Angulo arte-historialariak aztertzen ari dira 110 urte baino gehiagoko bizitza gorabeheratsua eta interesgarria duen eraiki hau. Ikerketaren emaitzak etorkizunean argitaratuko den liburu batean islatuko dira; eta, hor, hainbat arlo jorratuko dira, ardoak biltegitratzeko eraikin berezi hau eraikitzeko arrazoiekin hasi, eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao gaur egun den *Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroa* bihurtu arteko bilakaera.





**Ana Laura Aláez.**  
**Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik**

20€

ISBN: 978-84-451-3832-8

Ezaugarriak:

230 x 167 mm / 323 orrialde

Hizkuntzak:

Euskara, gaztelania, ingelesa



**Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa**

Katalogo / Liburua

19€

ISBN: 978-84-09-14258-3

Ezaugarriak:

230 x 160mm

Hizkuntzak:

Euskara, gaztelania, ingelesa

Banaketa:

La Rueda editoriala



**Ikuspegi feministak produkzio artistikoan eta arte teoretan ikastaroaren 11. edizioa**

Laster salgai

Ezaugarriak:

164 x 230 mm / 417 orrialde

Hizkuntzak:

Euskara, gaztelania, ingelesa



**Angela de la Cruz. Homeless**

Katalogo / Liburua

35€

ISBN: 978-84-09-08967-3

Ezaugarriak:

200 x 270 mm / 159 orrialde

Hizkuntzak:

Euskara, gaztelania, ingelesa



**El Contrato. Bulegoa z/b**

21€

ISBN:

978-84-608-4972-8 (eus-gaz)

978-84-608-4973-5 (ing-gaz)

Ezaugarriak:

220 x 165mm / 304 orrialde

Hizkuntzak:

Euskara / gaztelania

Ingelesa / gaztelania



**Maria Luisa Fernández.**

**Je, je... luna**

21€

ISBN: 978-84-608-1518-1

Ezaugarriak:

290 x 215mm / 136 orrialde

Hizkuntzak:

Euskara, gaztelania



Azkuna Zentroa argitalpenak [dendAZ](#) eta [dendaz.azkunazentroa.eus](#)-en erosi ditzakezu

Informazio gehiago: [azkunazentroa.eus](#)

# Kultura garaikideari lotutako gune berriak

Mediateka BBK eta Lantegia. Ideien laborategia gune berriek kultura garaikidearen bidez lotzen dute Zentroa, eta programazio hedatua sortzen dute, hainbat publiko-komunitateri zuzendua. Habitat hauek berariaz diseinatuta daude proiektu artistikoak sortu, ezagutu, ekoizti eta ikusteko, eta, orobat, parte-hartzea, berrikuntza, irisgarritasuna eta dibertsitatea lortzeko.

Ildo horretatik, **Mediateka BBK**-k balio anitzeko gune berriak sortzen ditu, taldean lan egiteko eta belaunaldien artean jardunez ikasteko, kultura praktika, prozesu eta esperientzia gisa bizitzeko. 'teken' bidez konektatzeko, pentsatzeko eta sortzeko tokia:

**TK101** **Haur eta familientzako gunea:** Mediateka BBKren lehen solairuan dago lehen 'teka' hau, haur eta familientzako entretenimendu-, ikaskuntza- eta dibertsio-gunea.

**TK102** **Erakusketa-aretoa:** Lehen solairuan dagoen erakusketa-espazio berri honek hainbat proiektu eta instalazio artistiko erakusten ditu. Une honetan, Leticia Paschettaren *Paisaje lúdico blanco*. *Juego de las caricias / Paisaia ludiko zuria*. *Laztanen joko*a instalazioa dago; artearen, paisaiaren eta jokoaren arteko mugak aztertzen ditu, espazioan esperientzia bizia sortzeko.

**TK103** Beiraz hornitutako espazio berri honen epizentro gisa jarritako liburu-zuhaitz bereziaren inguruan, liburuak, zinema eta musika elkarrekin bizi dira lehen solairuko eremu honetan, berariaz diseinatuta baitago familientzako tailerrak eta bilerak egiteko.

**TK104** **Hemeroteka:** Hemeroteka berrantolatuta, eta 'teka' berri hau sortu da lehenengo solairuan.

**TK201** Anfiteatro gisa diseinatutako espazio berri hau jakintza partekatzeko, esperimentatzeko edo hainbat jarduera aurkitzeko gune gisa planteatzen da, literaturekin hasi eta arte eszeniko, zinema edo musikaraino.

**TK202** **Komikteka:** Mediateka BBKren ardatzetako bat komikia eta ilustrazioa dira, eta 7.000 komiki inguruko funts bibliografikoa du. Eremu hau diziplina horretara eskainita dago osorik, eta harremanetan dago Zentroaren programazio hedatuarekin, hain zuzen Fatxada. Diseinua, ilustrazioa eta komikiak proiektuarekin.

**TK203** **Kultura digitalak:** Kultura digitalei buruzko gune honetan, erreferentzia-lanak, prentsa, streaming-a, liburu elektronikoak, audioliburuak, podcast-ak, filmak eta dokumentalak eta bideo-jokoak jasotzen dira, betiere haien jakintza, sormena eta erabilera arduratsua sustatuz.

**TK204** Beiraz hornitutako laborategi hau berariaz diseinatuta dago hainbat diziplinako jarduerak egiteko, diseinu gardenagatik eta egitura polibalenteagatik.



Mediateka BBK  
TK103



Bestalde, **Lantegia**. **Ideen laborategia** da gizartea kultura garaikidearekin lotzen duen truke-lekua; publikoen komunitateek hiriko kultura-ekoizpenean parte har dezaten sustatzen duen laborategia, espazio hauen bidez:

## BAT Espazioa

**Lantegia 2ko erakusketa-aretoa** prozesuen erakusketa, proiektu artistikoen ekoizpena eta herritarrentzako laborategi gisako erakusketak egiteko toki da.

## LAB 1

Espazio argi hau **praktika artistikoari** eta **hezkuntzari** eskainita dago, tailerren eta prestakuntza-taldeen bidez. Esperimentaziorako aretoa, prototipoak egiteko, ekoizteko eta kultura garaikide ireki eta partekaturantz eboluzionatzeko.

## LAB 2

**Zuzeneko arteetarako** dantza-areto honek ad hoc azpiegitura du dantza eta mugimendua praktikatzeko, pieza koreografiko berriak sortzea sustatuz lankidetzaren bidez.

## LAB 3

Lab 3 sorkuntza garaikideari buruzko **ikerkuntzarako** eta **jakintzarako** lekua da, eta bertan egoten dira Zentroari lotutako artista eta ikertzaile Az-Kideak.



**Lantegia 2**  
BAT Espazioa

# Jarduera Fisikoko Zentroa

Jarduera Fisikoko Zentroak irailean jarraituko du, kirola ahalik eta bermerik handienarekin egiteko egokitutako ordutegiekin eta edukierekin. Era berean, datorren denboraldiko ikastaroak instalazioetan segurtasun-tartea bermatzeko arauei jarraikiz egingo dira.

## Gimnasioa

Astelehenetik ostiralera: 8:00-22:00  
Larunbat, igande eta jaiegunetan: 9:00-21:00  
Erreserba: ordu 1 eta 15 minutu egunean

Fitness-aretoan, 49 kardio-makina, 12 ziklo-bizikleta eta 5 erremoergometro daude eskuragarri, erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia bermatzeko. Plaka- eta disko-makinak eta pisu libreko elementuak ere eskuragarri daude, eta jarduera-gelak prestatu dira indar-ariketak eta kardio-ariketak egiteko.

## Areto funtzionala

Astelehenetik ostiralera: 15:30-19:30  
Larunbata: 10:30-13:30  
Erreserba: ordu 1 egunean

## Igerilekua

Astelehenetik ostiralera: 8:00-22:00  
Larunbat, igande eta jaiegunetan: 9:00-21:00  
Erreserba: kale 1, ordu bat egunean

Igerilekuko ontziak berrantolatuta egin dira, edukiera egokia bermatzeko. Horrela, igerileku handian 4,20 metroko 3 kale egokitu dira, etengabe igeri egiteko. Gainera, ontzi handian 135 metro koadroko espazioa prestatu da, jarraitua ez den igeriketarako edo ariketarako. Igerileku ertain eta txikia jolas-jardueretarako gordeko da.

////////////////////////////////////  
**Egunero irekita**  
Astelehenetik ostiralera: 8:00-22:00  
Larunbat, igande eta jaiegunetan: 9:00-21:00  
**08:00etatik 09:00etara eta 21:00etatik 22:00etara:**  
**Iparragirre kaleko sarreratik**  
Erreserba egiteko: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)  
webgunean edo JFZko informazio-mahaian  
////////////////////////////////////

## 2020-2021 ikasturteak

Neguko ikastaroetan izena emateko epea **irailaren 16ra arte** egongo da irekita (egun hori barne), eta Jarduera Fisikoko Zentroan bertan egin daiteke. Hala ere, webgunearen bidez egitea gomendatzen da.

Ikastaro horietan interesa dutenek gehienez ere 1 eta 5 aukera markatu ditzakete Lurreko eta Uretako ikastaroetan. Bost jarduera desberdin izan daitezke, ikaskuntzako ikastaroak edo jarduera bera ordutegi desberdinetan barne hartuta, eta lehentasun-ordena adierazi beharko da beti.

**Irailaren 17an** bi zozketak egingo dira -bat abonatuentzat eta beste bat abonatu gabeentzat- plazak esleitzeko, ur-arloko ikaskuntzako ikastaroak barne hartuta, aurtun ez baitute maila-probarik izango. Eskabideetan jarritako lehentasun-ordenari jarraituko zaio, eta plazak ondoz ondoko txanden bidez esleitzeko dira. Egun horretan bertan argitaratuko dira zerrendak webgunean.

**Irailaren 18an** berriz irekiko da libre gelditzen diren plazetarako inskripzioa. 00:00tik aurrera [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)-en eta 8:00etatik aurrera Jarduera Fisikoko Zentroko mostradorean.







## AGENDA / IRAILA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	DISZIPLINA	+INFO
<b>OTS. 20</b> > <b>IRA. 20</b>		<i>Steve Paxton. Drafting Interior Techniques</i>	Arte bisualak / Erakusketa	18 orr.
<b>UZT. 1</b> > <b>IRA. 20</b>		<b>Néstor Lizalde</b> <i>Akelarre elektrikoa</i>	Arte bisualak / Instalazioa	22 orr.
<b>UZT. 15</b> > <b>URR. 1</b>		<b>Asier Irazabal &amp; Hernán Quipildor</b> <i>La llave del alma (Arimaren giltza)</i>	Arte bisualak / Interbentzioa	23 orr.
<b>UZT. 17TIK</b> <b>URRERA</b>		<b>Leticia Paschetta</b> <i>Paisaia ludiko zuria. Laztanen jokoak (Caresses Playscapes)</i>	Arte bisualak / Instalazioa	19 orr.
<b>IRA. 1</b> > <b>AZA. 1</b>		<b>Amparo Badiola, Gema Intxausti eta Susana Talayero</b> <i>Scriptbarik</i>	Arte bisualak / Erakusketa-proiektua	20 orr.
<b>IRA. 17</b> Ostg.		<b>Sorkuntza artistikorako atea zabaltzeko eguna</b>	Arte garaikidea	8 orr.
<b>IRA. 28</b> Astl.	19:30	<b>Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan</b> <i>Akelarre</i> Sail Ofiziala	Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinema	38 orr.
<b>IRA. 29</b> Astr.	19:30	<b>Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan</b> <i>Été 85 / Summer of 85</i> Sail Ofiziala	Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinema	38 orr.
<b>IRA. 30</b> Astz.	19:30	<b>Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan</b> <i>El agente topo / The mole agent</i> Perlak Saila	Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinema	38 orr.



## AGENDA / URRIA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	DISZIPLINA	+INFO
<b>UZT. 15</b> <b>&gt; URR. 1</b>		<b>Asier Irazabal &amp; Hernán Quipildor</b> <i>La llave del alma (Arimaren giltza)</i>	Arte bisualak / Interbentzioa	23 orr.
<b>UZT. 17TIK</b> <b>URRERA</b>		<b>Leticia Paschetta</b> <i>Paisaia ludiko zuria. Laztanen jokia (Caresses Playscapes)</i>	Arte bisualak / Instalazioa	19 orr.
<b>IRA. 1</b> <b>&gt; AZA. 1</b>		<b>Amparo Badiola, Gema Intxausti eta Susana Talayero</b> <i>Scriptbarik</i>	Arte bisualak / Erakusketa- proiektua	20 orr.
<b>URR. 1</b> <b>Ostg.</b>	11:00	<b>Irakurketa Errazeko kluba gaztelaniaz</b>	Literatura / Irakurketa	40 orr.
	19:30	<b>Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan</b> <i>Herself</i> Perlak Saila	Zinema eta ikus- entzunezkoak / Zinema	38 orr.
<b>URR. 1 &gt;</b> <b>ABE. 15</b>		<b>Pernan Goñi</b> <i>Emakume apartak</i>	Arte bisualak / Interbentzioa	24 orr.
<b>URR. 2</b> <b>Ostr.</b>	19:30	<b>Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan</b> <i>Rizi / Days</i> Zabaltegi-Tabakalera Saila	Zinema eta ikus- entzunezkoak / Zinema	38 orr.
<b>URR. 3</b> <b>Lar.</b>	19:30	<b>Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan</b> <i>Las mil y una</i> Sección Horizontes Latinos	Zinema eta ikus- entzunezkoak / Zinema	38 orr.
<b>URR. 4</b> <b>Iga.</b>	19:30	<b>Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan</b> <i>Ane</i> New Directors Saila	Zinema eta ikus- entzunezkoak / Zinema	38 orr.
<b>URR. 5</b> <b>Astl.</b>	17:00	<b>Fernando Carvalho</b> <i>Ableton Live</i> Tailerra	Arte biziak / Musika esperimentalak	62 orr.

## AGENDA / URRIA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	DISZIPLINA	+INFO
URR. 6 Astr.	16:30	<b>Komisariotzaren Nazioarteko Sinposio aurreko tailerra</b> <i>Erakusketaren saiakera (1997-2017)</i>	Arte bisualak / Topaketa	26. orr.
	17:00	<b>Irakurketa Errazeko kluba euskaraz</b>	Literatura / Irakurketa	40. orr.
	17:00	<b>Fernando Carvalho</b> <i>Ableton Live Tailerra</i>	Arte biziak / Musika esperimentalak	62. orr.
URR. 7 Astz.	16:00	<b>Fernando Carvalho</b> <i>Ableton Live Tailerra</i>	Arte biziak / Musika esperimentalak	62. orr.
	16:30	<b>Komisariotzaren Nazioarteko Sinposio aurreko tailerra</b> <i>Erakusketaren saiakera (1997-2017)</i>	Arte bisualak / Topaketa	26. orr.
	19:00	<b>Fernando Carvahoren kontzertua</b>	Arte biziak / Musika esperimentalak	31. orr.
	20:00	<b>Osa + Mujika</b> <i>Loser</i>	Arte biziak / Dantza	28. orr.
URR. 8. Ostg.	11:00	<b>Irakurketa Errazeko kluba gaztelaniaz</b>	Literatura / Irakurketa	40. orr.
	19:00	<b>Alos Quartet. XX Urte</b> <i>Loraldia</i>	Arte biziak / Musika eta Dantza	43. orr.
URR. 9 > 11 Ostr. > Iga.		<b>Dantzan Bilaka</b> Sorkuntza koreografikoko prozesuak	Arte biziak / Dantza	30. orr.
URR. 13 Astr.	16:30	<b>Komisariotzaren Nazioarteko Sinposio aurreko tailerra</b> <i>Erakusketaren saiakera (1997-2017)</i>	Arte bisualak / Topaketa	26. orr.
	17:30	<b>Pernan Goñi</b> <i>Dibujas lo que quieres (Marrzten duzu nahi duzuna)</i> tailerra	Arte bisualak / Ilustrazioa	60. orr.
	17:00	<b>Irakurketa Errazeko kluba euskaraz</b>	Literatura / Irakurketa	40. orr.

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	DISZIPLINA	+INFO
<b>URR. 14</b> Astz.	16:30	<b>Komisariotzaren Nazioarteko Sinposio aurrreko tailerra</b> <i>Erakusketaren saiakera (1997-2017)</i>	Arte bisualak / Topaketa	26. orr.
	17:30	<b>Pernan Goñi</b> <i>Dibujas lo que quieres (Marrazten duzu nahi duzuna)</i> tailerra	Arte bisualak / Ilustrazioa	60. orr.
	17:30	<b>Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)</b> <i>Der himmel über Berlin (1987) Zerua Berlin gainean</i>	Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinemateka	34. orr.
	18:30	<b>Zinemakumeak Gara! 25. emakumeek zuzendutako zinema erakusketa</b>	Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinema	44. orr.
<b>URR. 14</b> > <b>URT. 24</b>		<b>Mabi Revuelta</b> <i>Acromática. Una Partida Inmortal (Akromatikoa. Partida Hilezkorra.)</i>	Arte bisualak / Erakusketa	16. orr.
<b>URR. 15</b> Ostg.	11:00	<b>Irakurketa Errazeko kluba gaztelaniaz</b>	Literatura / Irakurketa	40. orr.
	19:30	<b>Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)</b> <i>Der himmel über Berlin (1987) Zerua Berlin gainean</i>	Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinemateka	34. orr.
<b>URR. 16</b> Ostr.	11:00	<b>Tailerra Sra. Polarroiskarekin</b>	Gizartea / Laborategia	61. orr.
<b>URR. 15 &gt; 22</b> Ostg. > Ostg.		<b>Film Sozialak. Zinema Ikusezinarren Nazioarteko Jaialdiaren 12. edizioa</b>	Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinema	44. orr.
<b>URR. 20</b> Astr.	17:00	<b>Irakurketa Errazeko kluba euskaraz</b>	Literatura / Irakurketa	40. orr.
	19:00	<b>Josune Urrutia Asua</b> <i>Compendio colectivo sobre cáncer</i> liburuaren aurkezpena	Arte bisualak / Ilustración	25. orr.

## AGENDA / URRIA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	DISZIPLINA	+INFO
<b>URR. 21</b> Astz.		<b>Komisariotzaren Nazioarteko Sinposioa</b> <i>Erakusketaren saiakera (1997-2017)</i>	Arte bisualak / Topaketa	26. orr.
	17:30	<b>Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)</b> <i>Mademoiselle (1966)</i>	Zinema eta ikus- entzunezkoak / Zinemateka	34. orr.
<b>URR. 22</b> Ostg.	11:00	<b>Irakurketa Errazeko kluba gaztelaniaz</b>	Literatura / Irakurketa	40. orr.
		<b>Komisariotzaren Nazioarteko Sinposioa</b> <i>Erakusketaren saiakera (1997-2017)</i>	Arte bisualak / Topaketa	26. orr.
	19:30	<b>Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)</b> <i>Mademoiselle (1966)</i>	Zinema eta ikus- entzunezkoak / Zinemateka	34. orr.
<b>URR. 27</b> Astr.	17:00	<b>Irakurketa Errazeko kluba euskaraz</b>	Literatura / Irakurketa	40. orr.
<b>URR. 28</b> Astz.	17:30	<b>Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)</b> <i>The greatest show on earth (1952)</i> <i>Munduko ikuskizunik handiena</i>	Zinema eta ikus- entzunezkoak / Zinemateka	34. orr.
<b>URR. 29</b> Ostg.	11:00	<b>Irakurketa Errazeko kluba gaztelaniaz</b>	Literatura / Irakurketa	40. orr.
	19:00	<b>Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)</b> <i>The greatest show on earth (1952)</i> <i>Munduko ikuskizunik handiena</i>	Zinema eta ikus- entzunezkoak / Zinemateka	34. orr.

---

### ZENTROAREN ORDUTEGIA

Egunero 9:00etatik 21:00etara.

---

### BISITA GIDATUAK

Bisita gidatuen programaren bidez, Alhóndigaren historiaren eta haren eraldaketaren berri jakin daiteke, bai eta Zentroan dagoen kultura-programazioa ere. .

ORDUTEGIA (EGUNERO):

Iraupena: 15min

11:00, 12:00, 13:00, 14:00

17:00, 18:00, 19:00, 20:00

TALDEAK:

Gutxienez: 4 pertsona / Gehienez: 10 pertsona

HIZKUNTZA: Euskara eta gaztelania

Sarrera dohainik. Informazioa eta izen-emateak:

Az Info-n, 944 014 014 telefonoan eta [info@azkunazentroa.eus](mailto:info@azkunazentroa.eus) webgunean

---

### Az TXARTELA

Az Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz goatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu.

Txartela emateak eta behar denean berritzeak 3 euroko kostua du.

---

### IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroak espazio errespetuzko, ireki eta irisgarria izan nahi du orotariko pertsona eta komunitateentzat. Gure jardueretan errazago parte hartzeko laguntza teknikorik behar baduzu, eska iezaguzu.

---

### GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu [golem.es](http://golem.es) webgunean.

---

### YANDIOLA, THE BOAR, HOLA BAR

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu [yandiola.com](http://yandiola.com) webgunean.

---

Azkuna Zentroak **Bureau Veritas-en Global Safe Site** ziurtagiria du, zeinak bermatzen baitu behar bezala betetzen direla Osasunaren Mundu Erakundeak (OMEK), Osasun Ministerioak eta beste osasun-agintari batzuek COVID-19ari aurre egiteko ezarritako segurtasun-neurriak, garbiketa-protokoloak eta babes pertsonaleko eta antolakuntzako neurriak. Gainera, Zentroko langileek berariazko prestakuntza- eta kontzientziazio-plana bete dute COVID-19aren prebentzioari dagokionez, eta, horren bidez, Azkuna Zentroak indartu dezake ezarritako osasun-neurrien betetze-maila.

### Gogoan izan:



Zure maskara erabili



Distantzia mantendu



Espazioetara sartu baina lehen eta irteterakoan



Ez ukitu aurpegia



Ez ukitu azalera komunak.  
Egiten baduzu, garbitu eskuak



Erabili zakarrontzi bereziak



Erabili bakarrik beharrezkoa bada eta adierazitako edukiera errespetatuz



Ordaintzeko, txartelarekin hobe

Informazio osoa kontsulta ezazu:



# Jar zaituz harremanetan Az-rekin

[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

Artistak: [programacioncultural@azkunazentroa.eus](mailto:programacioncultural@azkunazentroa.eus)

Deialdiak: [deialdiak@azkunazentroa.eus](mailto:deialdiak@azkunazentroa.eus)

Jendearentzako arreta: [info@azkunazentroa.eus](mailto:info@azkunazentroa.eus)

944 014 014

PLAZA ARRIQUIBAR, 4  
48010 BILBAO



Lege gordailua BI-1482-2018

© 2019. Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A.

**B**

**Bilbao**

gizartea eta kultura garaikidea

[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

